


GIZARTE-BAZTERKETA LARRIA ETA
ETXEGABETASUNAREN PERTZEPTZIO
SOZIALA DONOSTIAN: KOLDO MITXELENA
KULTURUNEA ETA BERE INGURUNEAREN
KASUA



**Universidad
del País Vasco**

**Euskal Herriko
Unibertsitatea**

Kriminologia Gradua. Gradu Amaierako Lana 2022-2023

Egilea: Yune Bermejo Segovia

Lanaren zuzendaria: Auxkin Galarraga

Laburpena

Lan honen bitartez etxegabetasunaren fenomenoaren hurbilketa bat egitea bilatzen da, fenomenoaren dimentsioak, ezaugarriak, etxegabe geratzearen faktoreak ezagutzea eta aztertzea da honen helburua. Bigarren helburua, etxegabetasunaren fenomenoaren inguruan gizartearen pertzepzio soziala ezagutzean datza, eta konkretuki Donostiako Koldo Mitxelenaren egoera zehatza ezagutzea. Guzti hau burutu ahal izateko Koldo Mitxelena zentroaren langileak eta bertako kontsumitzaileak elkarrizketatu dira, baita ere inguruko komertzioetako jabeak ere, modu honetan Donostiako etxegabetasunaren fenomenoaren baitan gune adierazgarri bat bilakatu da.

***Hitz gakoak:** etxegabetasuna, etxebizitza, diskriminazioa, eskubideak, gizarte pertzepzioa, estereotipoak eta gizarte laguntzak.*

Resumen

Mediante el presente trabajo se busca poder conocer más de cerca el fenómeno del sinhogarismo, así como conocer y analizar la dimensión del propio fenómeno, las características de las personas sin hogar y los factores que pueden llevar a una situación de sinhogarismo. Del mismo modo, este trabajo consta de un segundo objetivo, el cual consiste en conocer la percepción social acerca del fenómeno del sinhogarismo, en concreto la percepción que existe sobre el mismo en las inmediaciones del Koldo Mitxelena situado en Donostia y en el propio centro ya citado. Para poder llevar esto a cabo se han realizado diversas entrevistas a los propios trabajadores del centro y a los consumidores, así como a los dueños de los comercios de los alrededores. De esta manera, se ha convertido en un punto de interés y significativo en lo que respecta al fenómeno del sinhogarismo en Donostia en términos de este trabajo.

***Palabras clave:** sinhogarismo, vivienda, discriminación, derechos, percepción social, estereotipos y ayudas sociales.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. MARKO TEORIKOA	10
2.1 Etxebizitzaren egoera orokorra	10
2.1.1 Gaur egungo problematika	11
2.1.1.1 Eragiten duten faktoreak	12
2.1.1.2 Sortzen dituen ondorioak	16
2.2 Etxegabe dauden pertsonak	20
2.2.1 Arazoaren dimentsioak	20
2.2.2 Etxegabeen profila	23
2.2.3 Arrisku faktoreak	30
2.2.4 Osasun mentala eta etxegabetasuna	33
2.2.5 Etxegabe egotearen ondorioak	37
2.2.6 Etxegabe dauden pertsonen inguruko gizarte pertzepzioa	38
2.3 Etxegabetasun-egoerari aurre egiteko politikak eta zerbitzuak	52
2.3.1 Etxegabetasunaren arazoari aurre egiteko politika publikoak	52
2.3.2 Etxegabetasun egoeran dauden pertsonen bideratutako gizarte zerbitzuak eta bestelako laguntzak	58
3. ATAL ENPIRIKOA	70
3.1 Helburua	70
3.2 Zergatik aukeratu da Koldo Mitxelena	70
3.3 Metodologia eta izandako arazoak	71

3.3.1 Behaketa fitxa	72
3.3.2 Fitxa teknikoa	76
3.4 Emaidzak eta emaitzen analisia	78
3.4.1 Bilakaera	79
3.4.2 Estereotipoak eta aurreiritziak	81
3.4.3 Segurtasun sentimendua	86
3.4.4 Gizarte laguntzak	88
3.4.5 Gizarte harremanak	89
4. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	92
4.1 Ondorioak eta arazoak	92
Arazoak	94
Hipotesiak	95
4.2 Proposamenak	97
5. BIBLIOGRAFIA	100

1. SARRERA

Hasi baino lehen, garrantzitsua litzateke azaltzea lan honen abiapuntua. Lan hau UPV/ EHUko Gipuzkoako errektoreordetzak bultzatzen duen Gizarte-Ekintzailtzako Unibertsitateko Inkubagailea egitasmoaren baitan burutu da. Honen bitartez proiektu desberdinak ezagutzera ematen dira, kultura ekintzailea sustatzeko helburuarekin, modu honetan gradu eta unibertsitate desberdinetako ikasleak parte hartu izan ahal dugu gizarte errealitate hau ulertu eta landu ahal izateko. Jakintza eta oinarri horiek izateko saio teoriko-praktiko desberdinak antolatu dira, zeinak Lotura Giza Garapena Kooperatibaren eskutik egin, hau baita Gizarte-Ekintzailtzako Unibertsitateko Inkubagailua kudeatzen duen eragilea. Lotura Giza Garapenarekin izandako harremana funtsezkoa izan da lan hau egiterako orduan, beraien eskutik etxegabetasunaren fenomenoaren hurbilketa egin ahal izan baitugu eta modu honetan lanaren oinarriak finkatu.

Behin lanaren abiapuntua azalduta, etxegabetasunaren fenomenoaren inguruan hitz egiten hasiko gara. Kontuan izan behar dugu **fenomeno multidimentsional** baten aurrean kokatzen garela, hori dela eta, bazterkeria sozialean edota etxegabetasun egoera batean egoteak hainbat faktorek bultzatua izan ahal da. Kontuan izan behar dugu ere, etxegabetasuna **bazterkeria sozialaren aurpegiarik gogorrena** edo gogorrenetarikoa dela, azkenean pertsona hauek baztertuak izan baitira beraien bizitza sozialetik, eta bestelako eskubideengatik. Etxegabetasunak hainbat kategoria izan ahal ditu, lau konkretuki geroago azalduko den bezala, honen barruan bazterkeria edo diskriminazio mota berezi bat sortzen du, **egoitza-diskriminazioa** deritzona.

Guzti hau garatu ahal izateko, lana **hainbat atalez** osatzen da, **lau konkretuki**, hasiera batean (1) sarrera izango dugu, non lana garatu den testuingurua eta oinarrizko kontzeptu eta ideiak azaltzen diren.

Ondoren, (2) atal edo marko teorikoa izango dugu, bertan gizarte bazterkeriaren eta etxegabetasunaren errealitatea azalduko dugu eta beraz arazo edo fenomeno sozial hauetara hurbilduko gara, egoera honetan amaitzeko parte hartzen duten faktoreak kontuan hartuz. Baita ere egoerari aurre egin ahal izateko zer nolako politika kriminala bultzatu beharko genuen, eta bukatzeko EAEn eskuragarri dauden zerbitzuak aztertu eta azalduko ditugu bigarren atal honetan.

Hirugarren atalari dagokionez, (3) atal enpirikoa izango dugu, kasu honetan estatistikak, datuak eta egindako elkarrizketa zein inkesten datuak bateratu eta azalduko ditugu, emaitzen analisi bidez. Bukatzeko, (4) ondorioak eta proposamenak izango genuen eta beraz, lehen aipatu dudan bezala, arazo / fenomenoari aurre egiteko zer nolako irtenbideak eta proposamenak izan ahal ditugun jorratuko da, baita ere bildutako datuen arabera zer nolako ondorioak izan ditzakegun eta egon ahal diren hutsuneak betetzeko proposamenak egingo dira. Azkenik hipotesiak betetzen diren edo ez aztertuko da ere atal honetan.

Motibazioei dagokionez esan genezake egoera honi hurbiltzea izango zela, jakitzea zer nolako baldintzetan bizi diren, nola iritsi diren egoera horretara, zer faktore parte hartzen duten prozesu horretan eta zer nolako laguntzak izan ahal duten. Hala nola, laguntza horiek ematen dituzten instituzioek zela funtzionatzen duten, zer baliabide dituzten eta zer nolako hutsuneak izan ahal dituzten egoera honetan dauden pertsonen laguntzean.

Gizarte fenomeno honen dimentsioa, faktoreak eta zer nolako bizi kalitatea daukaten egoera horretan bizi diren pertsonak jakitea eta erakustea da lan honen **helburua**. Beste alde batetik aztertu nahi da gizarteak arazo edo fenomeno honekiko zer nolako iritzia edo ikuspuntua daukan, azken batean zer nolako informazioa daukaten gizarte etxegabetasunaren fenomenoaren inguruan. Interesekoa da ere, etxegabetasun egoeran dauden pertsonen zer nolako laguntzak jasotzen dituzten aztertuko dugu, bertan dauden edo egon ahal diren hutsuneak ezagutzeko eta hori konpontzeko irtenbideak proposatu ahal izateko. Honekin batera, konkretuki Koldo Mitxelena Kurturunearen¹ egoera aztertu nahi da, ondoren azalduko den bezala Donostiako hirian leku garrantzitsua delako eta bertan dagoen errealitate soziala ezagutzea bilatzen da lan honen bitartez. Horretarako, zer nolako harremanak dauden bertako komertzioen eta etxegabetasun egeoran dauden pertsonen artean, zer nolako jarrerak ikusten diren, arazoak sortzen diren leku zehatz horretan edo ez eta zein den bertaratzen diren pertsonen, Koldo Mitxelenako langileen eta hurbileko komertzioen pertzepzioa etxegabeen eta etxegabetasunaren inguruan aztertuko da.

¹ Koldo Mitxelena Kulturunea Donostian kokatzen den kulturunea da, liburutegi izaera duena baina ondare liburutegia ere bada. Hau da, izaera bikoitza dauka, alde batetik, beste liburutegi batzuk bezala, irakurketa publikoko funtsa dauka, baina beste alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren memoriari dagokionez, izandako erantzukizunari erantzuten dio. Bigarren honetan, balio berezia duten materialak osatzen dutela ondare funts hori azpimarratu beharra dago.

Lanaren helburuak behin finkatuta, **hipotesiak planteatu ditzakegu**, hainbat hipotesi egin ditzakegu:

- 1) **Egoera honetan dauden pertsonak alkohol edo droga kontsumoarengandik iristen dira horrelako egoeretara.** Hau da, nik uste dudana gizarteak pentsatzen duela, azken batean etiketa eta estigma handia dago pertsona hauen inguruan eta kasu hauetan gertatzen den bezala, faktore pertsonaletan jartzen dugu arreta, faktore sozialak eta bestelakoak alde batera utziz. Beraz ez daukagu arazo edo fenomenoaren ikuspegi orokor bat izaten, hau egozpenaren funtsezko erroretzat ezagutzen da.
- 2) **Laguntzak dute baina ez dira nahikoak egoerari aurre egiteko, beraz hutsune asko izaten dute.** Gizarte bazterkeria egoera batean edo etxegabetasun egoera batean, pentsatzen dugun baino pertsona gehiago daudela uste dut. Hori dela eta, baliabide asko behar izango dira guztien beharrak asetzeko eta beraz, nire aburuz hutsune ugari egongo dira laguntza hauek eskaintzen dituztenean.
- 3) **Gizarte bazterkeriako eta etxegabetasun egoeran dauden pertsonak gutxiengoak dira.** Uste dut ez dugula errealitatea ezagutzen, medioek ere ez dute honen inguruan hitz egiten eta beraz horrek ere sortzen du ez jakintasun hau. Beraz pentsatzen dut gizarteak orokorrean ez dakiela zer nolako dimentsioak duen arazo edo fenomeno honek.
- 4) Donostiako **Koldo Mitxelena Kulturunea eta bere inguruetan, etxegabetasun egoeran dauden pertsonen presentziak segurtasun eta erosotasunaren pertzepzioan eragin negatiboa** izan du erabiltzaile, bisitari eta inguruko komertzioetako langileen artean. Eragin negatiboa, etxegabe dauden pertsonen irudi eta estereotipo ezkorra eta mesfidatiaren efektua da.

Behin jakinda zeintzuk diren motibazioak, helburuak eta zein hipotesi daukagun, hauek asetzeko eta hipotesiak kontrastatu ahal izateko egoeraren hurbilketa egingo dugu, horretarako elkarrizketak egingo dira. Hauen bidez errealitatea islatzen duten pertsonekin hizt egin ahalko dugu eta beraz hauen bitartez datu anitz jasoko ditugu, hala nola, zer nolako laguntzak izan ahal duten, nondik ateratzen duten egoera horretan dauden pertsonen laguntzeko baliabideak, zer iritzi duten eta etorkizunerako zer nolako proposamenak edo aldaketak egingo zuten egoera aldatzeko. Beste alde batetik, esan

beharra dago inkesten bitartez ere datuak aztertuko ditugula, batez ere gizartearen iritzia jakiteko eta zer nolako informazioa daukan biztanleriak arazo edo fenomeno sozial honen inguruan. Beraz lana garatzeko **erabiliko den metodologia elkarrizketak (hauek erdi egituratuak) eta inkestak izango dira.**

Aldez aurretik aipatu bezala, lan honetan gizarte bazterkerian dauden pertsonen eta etxegabe dauden horien inguruan hitz egiten arituko gara. Hori dela eta, garrantzitsua da ondo definitzea lanean zehar presente egon behar diren hainbat kontzeptu, hauek, pobrezia, gizarte bazterkeria eta etxegabetasuna izango dira.

- **Pobrezia:** kontuan izan behar dugu fenomeno multidimentsional baten aurrean kokatzen garela, eta beraz aztertzerako orduan kontuan izan behar ditugun faktoreak askotarikoak izango direla konturatuko gara. Manos Unidas-en (2022) arabera, *‘faktore objektiboak egongo dira hala nola bizirauteko oinarrizkoak diren nahiak asetzeko baliabiderik eza, baina baita faktore subjektiboak ere, hala nola generoarekin zerikusia duten arrazoiengatik gizartearen parte-hartzerik eza’.*
- Beraz, hainbat ikuspegi desberdinetatik ulertu ahal da pobreziaren kontzeptua, alde batetik baliabide edo diru-sarrerarik eza bezala, beste alde batetik gizarte parte-hartzerik eza bezala eta beste batetik Bedoya Abella, C.L (2010)² lanean erreferentzia egiten dio Amartya Sen ekonomistak esaten zuenari, zeinak pobrezia giza garapen indibidualaren gabezia bezala ulertzen zuen. Azken ikuspegi hau garatzen hasi zen Lanaren Nazioarteko Erakundea (OIT), 1970 inguruan gizabanakoaren oinarrizko premien ikuspegia garatu zuelako. Hori dela eta, arropak, hezkuntza, osasuna eta beste batzuk bizi-kalitate duinerako behar diren gutxienekoen artean kokatu zuten.
- Kontuan izan behar dugu ikuspegi nagusia errekurtsio falta edo diru-sarrerarik eza bezala definitzen duela pobreziaren kontzeptua, eta beraz hau izango da erreferentzia bezala hartuko duguna. Horretarako kontuan izango dugu Manos Unidas (2020) *‘¿Qué es la pobreza?’* artikuluan Benjamin Rowntree (1901) ikerketari egindako erreferentzia,

² Bedoya Abella, C.L. (2010). Amartya Sen y el desarrollo humano. *Revista Nacional de Investigación-Memorias*, 8 (13), 277-288.

zeinetan, pobrezia hurrengo hitzetan definitzen duen “*diru-sarreraren guztizkoak bizitzeko oinarrizkoak diren beharrak asetzeko nahikoak ez direnean, pobrezia egoeran egongo dela esango dugu*”³. Honen arira hainbat kontzeptu garatu ziren, beraien artean pobrezia-lerroa edo pobrezia-atalasea.⁴ 2015.urtean egunerako 1’90 \$ baino gutxiagorekin bizitzen zena pertsona pobre bat bilakatzen zen.

- **Gizarte bazterkeria:** egoera bat da, non gizabanakoa parte-hartze sozial ekonomiko eta politikotik aldentuta dagoen. Prozesu bat bilakatzen da, honen bitartez gizartean integratzeko eta bertan jardun ahal izateko baztertua izaten da pertsona hori beraz giza garapenean eragina dauka, azken batean pertsona hori ezin izango delako modu egoki batean bere izaera garatu. Kontzeptu honetan hainbat talde edo egoera desberdin sartu ditzakegu, hala nola gizarte-herritartasun eta berdintasun-baldintza eza, kalitatezko hezkuntza eta kultura eskuratzeko aukera eza, etxegabetasuna eta beste hainbat.
- Gizarte bazterkeria ikuspegi eta faktore anitzez osatuta dago eta beraz hurrengo parrafoetan horretaz arituko gara. Kontzeptu hau beraz muga batzuk dauka, hauek ere definitzen dute nolabait kontzeptua eta ikuspegi desberdinak ematen digu kontzeptua ulertu ahal izateko, hauek hurrengoak dira:
 - Muga soziala: harreman sozialik ezari egiten dio erreferentzia, gizabanako bat edo talde batek bazterkeria sufritzen du honen ondorio bezala. Harreman sozialetarako eta aisialdirako sarbide nulua edo oso mugatua izaten dute pertsona edo pertsona talde hauek.
 - Muga politikoa: muga honek erreferentzia egiten dio gizabanakoak gizartearen barruan hartu behar dituen erabakietan parte hartze politiko ezari. Pertsona hauek kolektibotik urruntzen dira eta beraz ez dute parte hartzen inongo erabakietan.
 - Muga ekonomikoa: gizarte bazterkeriari dagokionez argien ikusten den muga da, honek erreferentzia egiten dio soldata baxuak, enplegu falta

³ Manos Unidas (2020). *¿Qué es la pobreza?*. <https://www.manosunidas.org/observatorio/pobreza-mundo/definicion-pobreza>

⁴ Pobrezia-lerroa edo pobrezia-atalasea: pertsona jakin batentzat erreferentziatzeko ongizate-maila baten diru-kostua, une eta leku jakin batean. Munduko Bankuak garaturiko kontzeptua da.

edo enplegu irregularra izatea, elikagai eta bestelako baliabideak eskuragarri ez izateari. Hori dela eta, gizartearen parte diren beste pertsonetako desoreka batean uzten du pertsona.

- Muga pertsonala: motibazio faltari zein osasun-zerbitzuetara sarbide ezari egiten dio erreferentzia, kasu batzuetan lotura dauka pertsonak adikzioen bat izatearekin edo zigor-aurrekariak izatearekin.

- **Etxegabetasuna**: zailtasun batekin topatzen gara kontzeptu hau aztertzerakoan, kasu honetan definizio zehatza baten gabeziarekin egiten dugu topo, hala era ⁵ETHOS kategoria erabiltzen da European, nahiz eta modu ez ofizial baten izan, hau ⁶FEANTSAK proposatutakoa.

- ⁷FEANTSA-ren arabera, etxegabetasun egoera baten dagoen pertsona horrela definitzen da: *'etxe sarbiderik edo hau kontserbatu ahal izateko ezintasuna duena, hau bere egoera pertsonalera egokitzeko eta bizikidetzaren eremu erregular bat ez duena. Hau arrazoi ekonomikoengatik edo bestelako muga sozialengatik izan ahal da edo arrazoi pertsonalak direla eta, hauek oztopatzen dutelako bizitza autonomo bat izatea'*.

- Beraz, etxegabe dauden pertsonen definizioa izanda esan genezake etxegabe egoteak ostatu egoki eta iraunkorrik ez izatea, pertsonentzako bizikidetzaren egonkorrerako esparru bat ahalbidetzeko, izango zen

- Aipatu beharra dago ere hainbat ikuspegi izan ahal dituela eta berez egoera horretan dauden pertsonak pobreak edo oso pobreak izan ahal dira. Baina ikusi ahal dugun bezala, ez da soilik faktore ekonomikoa kontuan izan behar baizik eta bestelako faktore sozialak eta pertsonalak ere. Hori dela eta kausak askotarikoak izan ahal dira, ohikoenak hurrengoak dira:

- 1) Enplegu falta (%63an kasuetan ematen da).

- 2) Diru-gabezia (%26'1an ematen da).

⁵ European Typology on Homelessness and Housing Exclusion. Honen arabera, etxegabetasunak hainbat kategoria dauzka, konkretuki 4, etxegabea; etxebizitzarik gabekoa; etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desagokia. Azken bi kategoriak egoitza-diskriminazioari dagozkio konkretuki

⁶ Federación Europea de Asociaciones Nacionales

⁷ Homeless Entrepreneur. (2018). *¿Qué es el sinhogarismo?*
<https://www.homelessentrepreneur.org/es/blog/2018/6/29/qu-es-el-sinhogarismo>

- 3) 'Paper' gabezia (%13,4an ematen da).
- 4) Haustura afektiboa (%11,8an kasuetan ematen da).
- 5) Alkoholaren kontsumoa (%7,6an kasuetan ematen da).

2. MARKO TEORIKOA

2.1 Etxebizitzaren egoera orokorra

Etxebizitzaren egungo egoera islatzen hasi baino lehen, garrantzitsua da ere etxebizitza zer den definitzea. Pasca Garcia, L. (2014) lanean esaten duenaren arabera, esan genezake⁸, etxebizitza gure egunerokotasunean egiten ditugun oinarrizko akzio gehien ematen den lekua dela. Kontuan izan behar dugu beraz, etxebizitzak gure oinarrizko beharrak asetzen laguntzen digula eta hauek garatu ahal izateko tresna gisa erabiltzen dugu. Bertan gure bizitza pribatua egiten dugu eta beraz horrek pribazitatea ematen digu, horretaz gain kontuan izan behar dugu ere, bertan lo egiten dugula eta edozein klima aldaketan kasuan salbu eta seguru mantentzen digun espazioa dela. Gainera, arropa garbiak izatean ere laguntzen digu, baita guk gure elikagaiak prestatu ahal izateko aukera.

Beraz ikusi ahal denez, etxebizitza bat izateak hainbat abantaila edo erraztasun ematen digu gure egunerokotasuna aurrera eraman ahal izateko. Nolabait etxebizitza bat izateak bizi kalitatea hobetzen du, azken batean bizirauteko beharrezkoak diren hainbat baldintza eskaintzen eta samurtzen dizkigulako. Kontuan izan behar dugu beraz, gaur egunean dakigun bezala badaudela pertsona ugari ez dutela etxebizitza bat eta honek zailtzen du hainbat aspektu, AIRES (2022)-en arabera⁹:

1. Ez dute lo egiteko toki finkorik ezta beraien oinarrizko beharrak asetzeko espaziorik ere.
2. Ezin izango dute beraien elikagaiak prestatu bere kabuz.
3. Delituen biktima izateko aukera handiagoak dute.
4. Gizaki bezala indibidualki garatzeko ez dute hainbeste baliabiderik edo aukerarik.
5. Beraien bizi kalitatea ez da hain altua.

⁸ Pasca García, L. (2014). *La concepción de la vivienda y sus objetos*. https://www.ucm.es/data/cont/docs/506-2015-04-16-Pasca_TFM_UCM-seguridad.pdf

⁹ AIRES, Asociación para la inclusión residencial y social (2022). *Entender el sinhogarismo*. <https://airesasociacion.org/entender-sinhogarismo/>

Etxebizitzara bueltatuz, egungo egoera ulertu ahal izateko, kokatzen garen testuingurua ere ulertu behar dugu. Etxebizitza bat lortu ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira eta beraz hauek lortzea geroz eta zailagoa bilakatzen ari den zerbait da, hurrengo puntuetan beraz egungo egoera ulertzeko beharrezkoak diren ideiak jorratuko dira.

2.1.1 Gaur egungo problematika

Gaur egunean hainbat oztopo izan ahal ditugu etxebizitza bat lortu ahal izateko eta honek ondorio larriak dakar. Arazoa ondo ulertu ahal izateko eta ikuspegi desberdinak ikusteko, garrantzitsua da kokatzen garen testuingurua ere ulertzea. 2023.urte hasiera honetan aurreko urteetan gertatu diren gizarte fenomenoek ondorioak pairatzen ari gara oraindik. Bi gizarte fenomenoek inguruan hitz egiten ari naiz konkretuki, alde batetik 2019.urtean bizi izandako pandemia COVID-19 dela eta beste alde batetik, oraindik bizitzen ari garen Ukrainia eta Errusiaren arteko borroka.

Kontuan izan behar dugu beraz, honek ere eragin itzela izan duela egungo merkatuan, soldatan eta beraz pertsonen diruzko baliabideetan. Datuetan arreta jarritz gero, konturatuko ginateke azken hamarkadetan merkatu inmobiliarioak hainbat aldaketa jasan dituela, hauen artean aipagarriak dira alde aurretik esandako bi gizarte fenomenoak baina baita hirugarrenengo bat ere, 2008ko krisialdia. Datuei erreparatu gero, 2007.urtean 24.772 etxebizitza saldu ziren eta 2008.urtean 17.874. Urte honetan egondako krisialdiaren ostean hurrengo urteko datuak ere salerosketari dagokionez beherakada bat islatzen dute, zifrarik baxuena 2014.urtean kokatuta, urte honetan 10.732 etxebizitza saldu ziren. Ondoren gorakada bat eman zen 2019.urterarte, bertan 19.239 etxebizitza saldu ziren baina kontuan izan behar dugu bertan COVID-19 zegoela eta beraz 2020ko datuei erreparatzen badiegu, beherakada bat eman dela ikusiko dugu, 2020.urtean 16.443 etxebizitza saldu baitziren.

2022ko datuei erreparatzen badiegu, gorakada bat ematen dela ikusten dugu, 2022ko azken datuek 22.289 etxebizitza saldu zirela adierazten digute. Nahiz eta datuek animatzen diguten pentsatzera gorakada jarraituko dela 2023.urte honetan, aditu eta profesionalek kontrakoa argudiatzen dute. Kontuan izan behar dugu, alde aurretik aipatu den bezala Errusia eta Ukrainiaren arteko gatazkak eragina izan duela azken urtean, dakigun bezala tarte honetan hainbat oinarrizko elementuen igoera bat eman da,

hala nola, elikagaiena, argiarena, gasarena... Hori dela eta, familia askok arazoak izan dituzte bai hipotekarekin aurrera jarraitzeko baita etxe bat bilatzerako orduan eta beraz etxegabe dauden pertsonen kopuruaren igoera ekarri du.

2.1.1.1 Eragiten duten faktoreak

Aldez aurretik azaldutako etxebizitzaren problematikan hainbat faktore desberdinak parte hartzen dute, Provivienda (2022) aipatzen digunaren arabera, faktore horiek hurrengoak dira:

1. SALEROSKETA-PREZIOA

Urtez urte etxebizitzaren salerosketa kopurua aldatzen joan da eta honekin etxebizitzak duten prezioa ere, naiz eta bestelako faktore batzuk ere kontuan izan behar ditugu, esate baterako etxebizitzaren gaineko interesak, hipotekak... Guzti honetan garrantzitsua da Euribor deituriko kontzeptua, honen bitartez hipotekaren prezioa adosten baita, beraz Euribor baxua edo negatiboa egonez gero, hipotekaren prezioak orduan eta baxuagoak izango dira.

Beraz hau kontuan izanik garrantzitsua da arreta jartzea nola urteen zehar etxebizitzaren prezioa igotzen joan den, esaterako 90. hamarkada erdialdean 670 euro /m^a-ko prezioa zegoen, aldiz 2008.urtearen lehen hiruilabetean 2.100 euro / m^a-ra igo zen Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbanaren estatistiken arabera.¹⁰ Kontuan izanda urte horretan krisia eman zela, hurrengo urteetan beherakada bat eman zen, 2018.urte amaieran berriz gorakada emanez, eta beraz etxebizitza gutxiago saldu ziren ere. Covid garaian Euribor-a zifra negatiboetan zegoen, hori dela eta etxebizitzaren salerosketa kopurua handitu egin zen eta 2.054 euro / m^a-ko prezioa zuen.

Provivienda (2022), *'el problema de la vivienda asequible'* artikulua atal batean aipatzen den bezala¹¹, etxebizitza bat eskuratzeko arazoaren artean salerosketa-prezio altua agertzen da. Garrantzitsua da ere artikulua ematen digun datuak, honen arabera, 2021.urte eta 2022.urte artean etxebizitzaren prezioa %5,5-eko igoera eman da.


Benetako arazoa soldatekin dator, hau da, etxebizitzaren prezioa igotzen bada baina horrekin batera pertsonen soldatak ere igotzen badira, jendeak ez du hainbesteko

¹⁰ Ministerio de Transporte, Movilidad y Agenda Urbana (2023). *Valor tasado de la vivienda* <https://apps.fomento.gob.es/BoletinOnline2/?nivel=2&orden=35000000>

¹¹ Provivienda (2022). *El problema de la vivienda asequible*. <https://provivienda.org/observatorio/el-problema/>

zailtasunik izango etxebizitza mantendu eta bestelako gastuak aurrera ateratzeko. Kontuan izan behar dugu beraz, etxebizitzaren prezioa igotzen ari zen bitartean soldatak naiz eta berdin ez mantendu eta beraz baita igoera bat egon, hau ez dela proportzionala izan edo ez duela etxebizitzaren prezioak izan duen bezain igoera izan. Pedro Cabrera.C (2009), *‘La acción social con personas sin hogar en la España del siglo XXI’*-n aipatzen den bezala¹² lanbide arteko gutxieneko soldaten eta etxebizitzaren prezioen arteko desberdintasuna geroz eta nabariagoa egiten zen eta horre, geroago aipatuko dugun bezala, etxebizitzarako eskubidea kolokan jartzen zuen nolabait (Hau modu argian ikusi genezake ‘grafiko 1’-en). Aldez aurretik aipatu bezala, familia askok arazoak izatea bizi kalitate on bat izateko beharrezkoak diren gauzak lortzeko eta etxebizitza mantendu ahal izateko arazoak, batez ere kolektibo zaurgarriagoetan.¹³

Grafiko 1: lanbide arteko gutxieneko saldata eta etxebizitzaren prezioaren arteko desberdintasuna



Iturria: Cabrera. P (2009), INE -tik ateratako datuekin.

¹² Cabrera, P. (2009). La acción social con personas sin hogar en la España del siglo XXI. *Exclusión social en España: Un espacio diverso y disperso en intensa transformación*, Madrid: Fundación Foessa, 173-219.

¹³ Aipatutakoaz gain, nire aburuz garrantzitsua da ere kontuan hartzea Ukraina eta Errusiaren arteko borrokaren ondorioz gaur egunean daukagun prezioen igoera orokorra. Prezioaren igoera hori hainbat eremutan eman da, esaterako elikagaietan, argiarena, etab. Hori dela eta, familia askok zailtasunak izan dituzte aurrera eraman ahal izateko beraien gastuak.

2. ALOKAIUAREN PREZIOA

Salerosketa-prezioekin gertatzen den ez bezala, alokairuaren prezioa Espainian 2015.urteetik gaur egunen arte ez du beherakadarik eman. Eusko Jaurlaritzako 2021.urtean *'Estadística del mercado de alquiler (EMAL)'*¹⁴ -en arabera, Euskadin, 2016.urtean 628,9 euro / hilabetekoa batz bestekoa lortu zen, eta aldiz 2021.urtean 717,3 euro / hilabeteko batz bestekoa lortuz eta 2016-2021 urte bitartean ez zen prezioaren beherakadarik eman. Garrantzitsua da ere kontuan hartzea merkatuko prezioa baino baxuagoak diren alokairuen zenbatekoa soilik %2,8-koa dela, beste guztiak beraz merkatuaren prezioa baino gorago kokatzen dira eta honek ere eragiten du familia askok zailtasunak izateko alokairua izateko eta hori mantentzeko.

Honekin lotuta eta bitxikeri bezala aipatzea ere atzerritarren diren %60-a baino gehiago alokairuan bizi direla etxebizitza lortu ahal izateko bertakoei jartzen dieten baino oztopo gehiago edo handiagoak jartzen baitira Provivienda-ren (2022) arabera.

Berriz ere soldataren arazoa aurkezten zaigu, kasu honetan alokairuaren prezioa gutxiengo soldatarekin alderatuz gero eta Provivienda (2022) *'el problema de la vivienda asequible'*¹⁵ publikazioan aipatzen duen bezala, ez da gomendagarria soldataren %30 baino gehiago ez izatea etxebizitzarako, benetako zifrekin alderatuz gero, konturatuko ginatke gehienak ehuneko hori gaintzen duela eta kasu batzuetan ehuneko hori bikoizten dela. Madrilgo kasu konkretuan lanbide arteko gutxieneko soldataren (Salario Mínimo Interprofesional erderaz, SMI laburduraz ezaguna) %61,8-a alokairura bideratuta dago, honek beraz arazo larriak ekarri ahal ditu alokairuaren mantenuarekin.

3. ETXEBIZITZA-PARKEA

Etebizitza-parkearen inguruan hitz egiten ari garenean, leku konkretu batean kokatuta dauden etxebizitzaren kopuruari egiten diogu erreferentzia. Gure interesekoak direnak konkretuki etxebizitza sozialak dira, Espainian konkretuki soilik %2,5-eko etxebizitza guztietatik dira etxebizitza sozialak Provivienda (2022)-ren arabera, eta beraz geratzen diren % 97,5-a bestelako etxebizitzak dira.

¹⁴ Eusko Jaurlaritza. (2021). *Informe anual 2021. Estadística del mercado de alquiler-EMAL*. Departamento de planificación territorial, vivienda y transportes. <https://www.euskadi.eus/documentacion/2022/informe-anual-de-2021-estadistica-del-mercado-de-alquiler-emal/web01-s2enple/es/>

¹⁵ Provivienda (2022). *El problema de la vivienda asequible*. <https://provivienda.org/observatorio/el-problema/>

Datu hauek Europarekin alderatuz gero, konturatuko ginateke Espainiakoa Europako batz bestekoa baino baxuagoa dela. Kontuan hartzen badugu Europako etxebizitza sozialen ehuneko 9,3 dela, konturatuko ginateke arazo larri baten aurrean kokatzen garela.

Cabrera, P. (2009) lanean aipatzen den bezala¹⁶, urteen zehar geroz eta etxebizitza sozial gutxiago sortzen ziren, kontuan izanik hauek bideratuta zeudela gizarteratze-gabezia zeukaten pertsonentzet eta bestelako antzerako egoeretan zeuden pertsonentzat. Beraz orain arte ikusi den bezala, etxebizitzaren egoera geroz eta okerragoa zen eta bazterkeria egoera batean zeuden pertsonentzat oraindik eta zailagoa bihurtzen hasi zen etxebizitza baten sarrera.

4. ETXEBIZITZARA BIDERATUTAKO AURREKONTUA

Etxebizitza-parkearekin nolabaiteko lotura dauka, azken batean estatuak ez badu errekurso ekonomikorik bideratzen etxebizitzetara ez da aukerarik egongo etxebizitza sozialak gehiago garatzeko ezta bestelako etxebizitzak eraikitzeko. Eremu honetan garrantzitsua da ere arreta jartzea nahiz eta errekursoak bideratu gero ez bada martxan jartzen edo politika publiko eraginkorren bitartez ez badira indartzen etxebizitza-parke publikoak edo etxebizitza eskuragarrien parkeak ez du ezertarako balioko.

2023.urte honetan Estatuak egindako aurrekontuen arabera, 3.477 milioi euro bideratuko dira etxebizitzara, hau Provivienda (2023) '*¿cuánto invierte el estado en vivienda?*' publikazioaren¹⁷ arabera azten 20 urteetan kausa horretara bideratutako aurrekonturik handiena da, beraz aukera egokia agertzen da arazoari aurre egin ahal izateko.

Guzti honek garrantzi itzela dauka lan honen bitartez aztertzen ari garen gaiarekiko, azken batean esandako guztiak oztopatzen baitu gaur egunean pertsonak etxebizitza bat erosteko, jada etxebizitza badaukate mantendu ahal izateko edota gastuak aurrera eraman ahal izateko. Azken urteetan etxegabe dauden pertsonen kopurua izugarri igo da, INE-k adierazten duen bezala, 2022.urtean 28.552 pertsona zeuden etxegabetasun egoeran, 2012.urtean 22.938 pertsona zeuden bitartean.

¹⁶ Cabrera, P. (2009). La acción social con personas sin hogar en la España del siglo XXI. *Exclusión social en España: Un espacio diverso y disperso en intensa transformación*, Madrid: Fundación Foessa, 173-219.

¹⁷ Provivienda (2023). *¿Cuánto invierte el estado en la vivienda?*. <https://provivienda.org/observatorio/causas-del-problema/presupuesto/>

2.1.1.2 Sortzen dituen ondorioak

Aurreko orrietan azaldutako egoerak eragin sozial itzela dauka ikusi dugun bezala faktoreak ditu eta hurrengo orrietan ondorioetan zentratuko gara. Provivienda (2022) *'el problema de la vivienda asequible'*¹⁸ publikazioaren arabera 4 ondorio nagusi eratzten dira, hauek hurrengoak dira:

1. KALERATZEAK

Hasteko, kontuan izan behar dugu kaleratze mota desberdinak daudela, gure interesekoa ez ordaintzeagatik kaleratzea izango da, kasu honetan kontratu bat dago eta errentatzaileak kontratua suntsiarazten du kontratuaren ez betetzeagatik¹⁹. Kontratu horren ez betetzeen artean ez ordaintzea agertzen da, dakigun bezala eta alde aurretik azaldu den bezala familia askok arazoak izaten dituzte ekonomikoki aurrera irten ahal izateko eman diren prezioen gorakada dela eta.

INE (2023)²⁰ arabera kaleratze datuei erreparatzen badiegu, 2018.urtean 53.857 kaleratze egon ziren Espainian, 2019.urtean aldiz 56.787 kaleratze eta beraz gorakada bat egon zela ikusten dugu, 2020.urtean aldiz beherakada handia eman dela ikusi genezake, urte honetan 34.750 kaleratze egon baitziren. 2020. urtetik aurrera beherakada hori jarraitzen du, 2021. urtean 32.383 kaleratze egonez eta 2022.urtean 25.551 (nahiz eta azken bi datu hauek oraindik aldatu ahal diren).

Ikusten dugunaren arabera kaleratzeak behera egin dute azken urteetan, baina hau horrela izan da, gobernuak COVID-19 eta gaur egunean oraindik bizi izan garen fenomeno batengatik, Ukrainia eta Errusiaren arteko gatazkarengatik hain zuzen ere. Kontuan izan behar dugu aldi baterako neurriak direla eta beraz, gobernuak hauek kentzen dituenean berriz gorakada emango dela. COVID-19 egoera dela eta 2020.urteko apirilak 1 BOEn argitaratu zen *'Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al COVID-19'*,²¹ honen arabera, pertsona ezaugarriei laguntzen zaie

¹⁸ Provivienda (2022). *El problema de la vivienda asequible*. <https://provivienda.org/observatorio/el-problema/>

¹⁹ Conceptos jurídicos (2023). *Derecho inmobiliario, Desahucios*. <https://www.conceptosjuridicos.com/desahucio/>

²⁰ Instituto Nacional de Estadística. (2023). *Estadística sobre ejecuciones hipotecarias. Resultados*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176993&menu=resultados&idp=1254735576606

²¹ Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al COVID-19. *Boletín Oficial del Estado*, 91, de 1 de abril de 2020. <https://www.boe.es/eli/es/rdl/2020/03/31/11>

alokairuarekin, baita pertsona hauen etxebizitzaren kaleratzeak bertan behera geratzen dira eta bestelako neurriak. Horretaz gain, 2022.urtean neurri horien aplikazio denbora zabaltzen du eta 2023.urte honetan berriz ere zabaldu da epe-muga bezala 2023ko ekainaren 30a jarriz.

Bestalde Errusia eta Ukrainiaren gatazka daukagu, honen inguruan ere gobernuak hainbat neurri jarri ditu martxan, 2022. urteko abenduaren 28an BOEn argitaratutako *'Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad'*.²² Honen bidez energiaren prezioaren eustea herritar eta enpresa guztientzat zein sektore eta kolektibo kaltetuei laguntzea nahi zen.

2. EMANTZIPAZIOA

Garrantzitsua da kontuan izatea ondorio hau konkretuki gazteei eragiten dietela, kontuan harturik CJE-ek²³ gazte bezala ulertzen dela 16-34 urte bitarteko pertsonen baina batez ere 16-29 bitartekoak. Konturatuko gara etxebizitzaren sarbidea pertsona gazteentzat arazo larria suposatzen duela oraindik gaur egunean, gainera kontuan izanik alde aurretik aipatutako oztopoak eta bestelako arazoak, egoera larritzen da.

Azken urteetako emantzipazio datuak eta hauen inguruko txostenak ikusten baditugu, hala nola, Federación de Entidades con Proyectos y Pisos Asistidos (FEPA), 2023, observatorio de la emancipación proiektuaren bidez lortu genezakenak bezala, 2012.urtean %23,6-ko tasa batean kokatzen ginela ikusi genezake²⁴. Kontuan hartu behar duguna da 2012.urteetik aurrera gazteen emantzipazio tasa progresiboki jaisten joan dela 2021.urtean %16,75-koa izanik. Pentsa genezake hau gazteen artean dagoen langabezia-tasarengatik izan ahal dela, baina txosten berdinak esaten digunaren arabera, urte horretan gazteen langabezia-tasa jaitsi egin da eta pobrezia egoeran egoteko arriskua duten gazteen kopurua murriztu egin zen. Horrek beraz pentsatzera eramaten

²² Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad. *Boletín Oficial del Estado*, 311, de 28 de diciembre de 2022. <https://www.boe.es/eli/es/rdl/2022/12/27/20/con>

²³ Consejo de la Juventud de España.

²⁴ FEPA (2023). *La emancipación juvenil en España*. Observatorio de la emancipación juvenil. <https://www.observatorioemancipacion.org/la-emancipacion-juvenil-en-espana-datos-generales/>

gaitu berriz ere soldaten igoeraren eta etxebizitzaren prezioaren igoeraren arteko proportzio faltagatik izan ahal dela.

Egoerari aurre egin ahal izateko eta beraz, gazteak emantzipatzeko aukera gehiago izateko gobernuak martxan jarri du proiektu bat non laguntzak ematen diren 18-35 urte bitarteko pertsoneri, betiere aurreikusten diren baldintzak betetzen badira. Proiektu hau 'Bono alquiler Joven' deitzen da.²⁵

3. ETXEGABETASUNA

Etxegabetasunak bazterkeria sozialaren egoerarik gogorrena islatzen du, eta betidanik existitu izan den arazo bat da, nahiz eta, azken urteetan garrantzi handiagoa hartzen ari den fenomeno den eta beraz neurri edo plan desberdinak garatzen hasi dira egoerari aurre egin ahal izateko. Neurri horien artean Eusko Jaurlaritzaren 'Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021'²⁶ aipagarria da, baita ere Osasun, Gizarte Zerbitzu eta berdintasun Ministerioaren 'Estrategia Nacional Integral para Personas sin Hogar 2015-2020'²⁷. Hauek azken batean etxegabetasuna kokatzen den testuinguruaz gain, faktore, kasu eta zer nolako planak edo estategiak hartu ahal diren azaltzen ditu.

Fenomenoari aurre egiteko neurrien implementazio horrek ez du esan nahi benetako helburua, kasu honetan, etxegabetasunaren arazoa desagerraraztea, betetzen denik, hau da, dimentsio handiko fenomeno baten aurrean gaudela konturatu behar gara eta horrek ere aniztasun bat dakar, beraz pertsona batzuentzat lagungarria izan ahal den neurri bat, beste batzuentzat ez da nahikoa izango. Hori dela eta azken urteetan hainbat instituziok edo proiektu sozialek apostua egin dute interbentzio eta arreta indibidualizatua garatzera eta horrela, pertsona bakoitzaren beharrak nolabait asetu ahal izango dira.

Etxegabetasun kontzeptu honetan ere, garrantzistua da presente izatea etxegabetaun egoera batera eraman ahal zaituzten oso kausa anitzak daudela, horien artean Kontuan

²⁵Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (2022). *Bono alquiler joven*.
<https://www.mitma.gob.es/vivienda/bono-alquiler-joven>

²⁶Eusko Jaurlaritza (2018). *Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021*. Departamento de empleo y políticas sociales.
https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/es_def/adjuntos/ESTRATEGIA-VASCA-PARA-PERSONAS-SIN-HOGAR-2018-2021-castellano.pdf

²⁷Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad (2015). *Estrategia Nacional Integral para Personas sin Hogar 2015-2020*.
<https://www.mdsocialesa2030.gob.es/derechos-sociales/servicios-sociales/Personas-sin-hogar/docs/EstrategiaPSH20152020.pdf>

izan behar dugu beraz, egoera honetan dauden pertsonak ezaugarri oso desberdinak izango dutela eta beraz ezin izango dela perfil zehatz bat osatu ez delako existitzen.

Kontuan hartu behar dugu betidanik existitu izan den arazo bat dela baina urteen zehar geroz eta garrantzi handiagoa ematen ari zaio, baina, horrek ez du esan nahi arazoari aurre egiteko dauden baliabideak nahikoak direnik. Dimentsio handiko fenomeno bat da, geroz eta pertsona gehiago daudenak, azken 10 urteetan Provivienda-ren (2022) arabera, etxegabetasunak %25-eko igoera izan du. Datu hauei erreparatuz gero, INE-ren (2022) arabera²⁸, 28.801 pertsona daudela etxegabetasun egoera batean konturatuko gara, datu hau 2012.urtekoekin alderatuz gero ikusiko genuen igoera handia eman dela, urte horretan 22.938 pertsona baitzeuden. Honek kokatzen gaitu 100.000 biztanleekiko 71,3 pertsona etxegabetasun egoera batean egoteak.

Provivienda-ren (2022) arabera, Euskal Herria, Madril eta Andaluzia etxerik gabeko pertsona gehien bizi diren lurraldeak dira. Beraz, Euskal Herriko egoerari erreparatzen badiogu, INE-ren (2022) arabera²⁹, 2022. urten Euskal Herrian 4.456 pertsona etxegabe zeuden, horietako 3.484 gizonezkoak eta 972 emakumezkoak.

4. ZAILTASUN EKONOMIKOAK

Konturatuko gara etxebizitza bat lortzea geroz eta zailagoa dela, horretarako ere soldataren portzentai altu bat bideratu beharko duzu eta horrek familia askori arazo larriak suposatzen dizkio. Kontuan izanda jada zailtasunak daudela etxebizitza mantentzeko eta gastuei aurre egiteko, gaur egunean eman diren aldaketa ekonomikoak direla eta, beraz eman den inflazio orokorra dela eta oraindik eta familia gehiagok daukate zailtasunak aurrera irten ahal izateko.

Provivienda-ren (2022) arabera, familien %40,9-ak beraien soldaten %40a baino gehiago bideratzen dute etxebizitzaren gastuari, gogoratu behar dugu gomendagarria dela %30a baino gehiago ez bideratzea. Honek egoera larrietan uzten du %33,64 familiei, non emakumezkoa etxearen buru duten, gizonezkoak etxearen buru direnean

²⁸ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta sobre personas sin hogar 2022*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176817&menu=ultiDatos&idp=1254735976608

²⁹ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Personas sin hogar segun sexo por comunidad autonoma de ubicación del centro*. <https://www.ine.es/jaxi/Datos.htm?tpx=54265>

ehunekoa jaitsi egiten da %25,96koa izanik. Hala ere, %34,64 eta %25,96ak etxebizitzaren gastuei aurre egin ostean pobrezia erlatiboko egoeran geratzen dira, INE-ren (2021) arabera, pobrezia erlatiboko egoeran dagoen biztanleria horrela definitzen da *‘urteko guztizko errenta baliokidea pobrezia atalasearen azpitik duten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoa da’*.³⁰ Ildo honetatik jarraituz gero, pobrezia larriko egoeran geratzen diren pertsonak ere badaudela konturatuko ginateke, horietatik %19,69a emakumezkoak buru dituzten etxeak dira eta %15,56a gizonezkoak buru dutenak.

2.2 Etxegabe dauden pertsonak

2.2.1 Arazoaren dimentsioak

Arazoaren benetako dimentsioak izatea zaila da, azkenean instituzioek ematen diguten datuak estimazio batzuk besterik ez dira kasu batzuetan, beste batzuetan aldiz ez dute etxegabe dauden pertsonen osotasuna islatzen eta beraz horrek zailtzen du egoeraren irudi bat izatea. Kontuan hartzekoa da ere une oro aldatzen ari den fenomeno bat dela eta gaur egunerarte instituzioek izandako metodologiak ez dira nahikoak izan arazoa bere osotasunean aztertzeko. Adibide bat jarritz gero, INEk (2022)³¹, soilik kontuan hartzen ditu zentroetara zein bestelako errekurtoetara joaten diren pertsona horiek, eta beraz ez du barne hartzen bestelako hiru egoeran dauden pertsonak:

1. Adingabeak diren horiek.
2. 20.000 biztanle baino gutxiago duten herrialdeak, eta beraz herrialde horietan baldin badaude etxegabetasun egoera batean dauden pertsonak, ez dira kontuan hartzen.
3. Dauden errekurto desberdinetara joaten ez diren pertsona horiek.

Horrek beraz dagoen ezjakintasuna areagotzen du, datuak soilik errealitatearen zati bat islatzen baitute. Hogar SI-ren³² aburuz INEk 2022.urtean zenbatutako 28.552

³⁰ Instituto Nacional de Estadística (2021). *Población en riesgo de pobreza relativa según situación laboral y en las personas con trabajo*. https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259925455948&p=%5C&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout¶m1=PYSDetalle¶m3=1259924822888

³¹ Instituto Nacional de estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

³² Europapress (2022). *Hogar Sí tacha de "alarmantes" los nuevos datos de sinhogarismo en España y urge a las administraciones a tomar medidas*.

pertsona horiei, %30 bat gehiago gehitu beharko lirateke, honek 37.117 etxegabetasun egoeran dauden pertsonekin usten digu. Honek aldeaz aurretik esandakoa eusten du, azken batean estimazioak dira eta.

Azpimarratzekoa da ere, horrelako datu bilketak ez direla maiz egiten, hau da, INEk aldeaz aurretik aipatuta inkesta hori 10 urtez zioan egin gabe, horrek arazoari aurre egin ahal izateko eta benetako egoera ezagutzeko zailtasunak suposatzen ditu. Baita ere estrategiak aplikatzerako orduan zailtasunak agertzen dira, azkenean ezjakintasuna dagoelako beraien beharrak inguruan, zein faktorek hartzen duten parte, perfila berdina bada edo aldatu den, etab. Estrategien kasuan, arazoaren inguruko datu gutxi izatea edo hauek eguneratuak ez egoteak suposatu dezake hauek ez izatea eraginkorrak eta beraz sortzen diren estategia edo planak ez izatea baliagarriak arazoa tratatu ahal izateko.

Beraz datu zehatzak eta urtez urte zer nolako aldaketak izaten duen fenomeno honek asko zailtzen du fenomenoaren inguruan irudi argi bat izatea eta konturatzeko zein egoeratan kokatzen garen. Gaur egungo datuak INEk egindako 2012.urtean '*Encuesta a las personas sin hogar*'-kin³³ alderatuz gero edota bestelako datuak aztertuz gero, ikusiko genuke zela aldatu den egoera, batez ere, gero aztertuko dugun bezala eragiten duten faktoreetan. Pertsona kopuruari dagokionez, 2022.urtean egindako '*Encuesta a las personas sin hogar*'³⁴ 28.552 pertsona joaten ziren zentroetara edo bezalako laguntza sistemetara, 2012.urtean aldiz 22.398 dira. Ikusienez beraz, 10 urteetan %24,5eko igoera egon dela Provienda-k (2022) esaten duen bezala, hori kontuan izan gabe inkesta berak kanpoan uzten dituen pertsona guztiak, beraz oraindik eta altuagoa da igoera.

Etxegabetasun egoeran dauden **pertsonen kopurua 100.000 biztanleekiko** zer nolako distribuzioa duten ikusten badugu, 2012.urteatik 2022.urtera ere aldaketak egon direla ikusiko dugu. **2012.urtean** hain zuzen Melilla (638,4), Ceuta (549,9), Euskal Herria (141,3) eta Galizia (133) kokatzen ziren tasa altuenekin. Bestalde tasarik baxuenak dutenen artean Gaztela-Mantxa (24,4), Valentzia (32,8), Murtzia (35,3) eta Kanaria (48,2) kokatzen dira.

<https://www.europapress.es/epsocial/derechos-humanos/noticia-hogar-si-tacha-alarmanes-nuevos-datos-sinhogarismo-espana-urge-administraciones-tomar-medidas-20221019142254.html>

³³ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*.

<https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

³⁴ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*.

https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

Aldiz, **2022ko datuei** erreparatu gero konturatuko ginateke tasa altuenekin Ceuta (391,4), Euskal Herria (315,9), Nafarroa (214,7) eta Kantabria (182,6) dugu, Melilla 163,5-ko tasarekin geratuz. Tasarik baxuenak dutenen artean Valentzia (14,8), Katalunia (42,6), Gaztela-Mantxa (45) eta Murtzia (48,4) kokatzen dira.


Eman diren aldaketak aztertzen baditugu, zirrargarriena Melillaren kasua da, azkenean aldaketarik handiena ikusten baitugu, baina hau ohiz kanpoko da 2022ko lehen hilabeteetan Marokoko muga itxita egon zelako eta horrek etxegabetasun egoeran zeuden pertsonak arreta zerbitzuetara joatea oztopatu zieten. Melillaren kasuistika azaldu ostean Ceutaren kasuan ikusten dugu tasa nahiko txikiagoa dela, baina hala eta guztiz ere tasa altuena dauka 2022 urtean. Euskal Herriaren kasuan gorakada nabari bat egon dela ikusten dugu, Nafarroa eta Kantabriaren kasuan tasarik altuenetarikoen artean kokatzen dira ere, kontuan izanik 2012.urtean 129,5 eta 81,7-ko tasak zutela. Honek laguntzen gaitu arazoak zer nolako eboluzioa izan duen ikustera eta batez ere zein lekuetan eman den aldaketarik handiena.

Arazo honek duen oztopoetako bat arazoari aurre egin ahal izateko gaur egunean dauden estrategiak edo laguntzat, ikusi dugun bezala geroz eta pertsona gehiago daude etxegabetasun egoeran, baina ematen diren laguntzak ez dira geroz eta gehiago. Beste atal batean ikusiko dugun bezala, badaude arazoari aurre egin ahal izateko sortu diren estrategia edo metodologia berriak, baina hala ere ez daukagu gaitasun nahikorik arazoari bere osotasunean aurre egiteko. Honek bigarren arazo bat sortzen du, kasu honetan kronifikazioari egiten diogu erreferentzia, azken batean egoera luze batez etxegabetasun egoera baten egonda egoera hori kronifikatu daiteke. Hori dela eta, estrategiak hori ekiditera bideratuta egon beharko liriteke. Cabrera, Pedro José, Rubio, María José (2008), *‘Las personas sin hogar, hoy’* artikuluko datuei erreparatzen badiegu³⁵, konturatuko ginateke, etxegabetasun egoeran dauden pertsonen ehuneko handi batek 3 urte baino gehiago daramatzala egoera horretan (Hau ‘grafiko 2’-n ikusi dezakegu) espainiarren %50-a baitago egoera horretan, atzerritarrek aldiz %26-an kokatzen dira. Atzerritarren kasuan, gehiengoak 6 hilabete baino gutxiago darama etxegabetasun egoeran, %38 inguruan kokatzen dira, aldiz 6 hilabete baino gutxiago daramatzaten espainiarrak %22 inguruan kokatzen dira. Beraz argi eta garbi ikusi

³⁵ Cabrera, P. José, Rubio, M. José (2008). Las personas sin hogar, hoy. *Revista de Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 75. 51-74 orr.

genezake, etxegabetasun egoera daramatzaten denboran atzerritarren eta espainiarren populazioaren arteko desberdintasun handiak daudela.

Grafiko 2. Etxegabetasun egoeran daramatzaten denbora nazionalitatea kontuan izanik



Iturria: Cabrera, P. JÓse, Rubio, M. JÓse (2008)

Aldiz INE (2022)-ko datuak ikusten baditugu, %40,5-a hiru urte baino gehiago zaramatzan etxegabetasun egoeran, %27-a bat eta hiru urte bitartean eta %32,5-a urte bat baino gutxiago.³⁶

2.2.2 Etxegabeen profila

Profilarri dagokionez, konturatuko gara profil oso desberdinak topa genezakeela kolektibo honen barruan, azken batean ez baitako etxegabetasun egoeran dauden pertsonen profil zehatz bat. Gainera, azpimarratu beharra dago etengabe aldatzen ari den fenomeno bat dela, hori dela eta ezaugarri askotarikok dituzten pertsonak osatuko dute kolektibo hau. Egia da orain dela pare bat urte atzera eginda nazionalitatearen arabera profila gehiago zela pertsona zuriarena eta gaur egunean hori jada aldatzen ari da ikusiko dugun bezala.

³⁶ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta sobre personas sin hogar 2022*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176817&menu=ultiDatos&idp=1254735976608

Lehenik eta behin **sexua** izango dugu, Panadero Sonia, Vázquez J. José (2016), ‘en las fronteras de la ciudadanía, situación de las personas sin hogar y riesgo de exclusión social en Madrid’³⁷ lanaren bidez lortutako datuen arabera, 2016. urtean %84-a gizonezkoak ziren eta soilik %16-a emakumezkoak, aldiz INE (2022)-ko³⁸ datuei erreparatuz gero, %76,7-a gizonezkoak ziren eta %23,3-a emakumezkoak. Beraz gizonezko populazioa emakumezko populazioa baino askoz ere handiagoa dela ikusi genezake bi urteetan, nahiz eta 2016.urtetik 2022.urtera emakumezko populazioaren igoera eman den.

Adinari dagokionez desberdintasunak egin beharko lirateke bertako populazioaren eta atzerritarrak diren populazioaren artean, aldaketa nabariak daude eta garrantzitsua da ere hauek kontuan hartzea.

Atzerritarra den populazioaren INE (2012)³⁹ datuen arabera, %76,6-a berrogeita bost urte baino gutxiago zuten, honen barruan hemezortzi eta hogeita bederatzi urte bitarteko adinak dira nabariagoak, hauek %32,4-a adierazten baitute. Bestalde hogeita hamar eta berrogeita lau urte bitartekoak %46,2-a adierazten dute. Berrogeita bost eta hirurogeita lau urte bitartekoak %19,2-a dira eta bukatzeko hirurogeita lau urte baino zaharragoak %2,2-a adierazten dute.

Urte bereko datuak espainiar populazioarekin alderatzen baditugu, aldaketa handiak somatzen ditugu, hemezortzi eta hogeita bederatzi urte bitartekoak %8,2-a adierazten baitute eta hogeita hamar eta berrogeita lau urte bitartekoak %31,9-a. Bestalde berrogeita bost eta hirurogeita lau urte bitartekoak %54,7-a adierazten dute eta hirurogeita lau urte baino zaharragoak %5,2-a.

2022.urteko datuei erreparatuz gero, atzerritar populazioaren %68-a berrogeita bost urte baino gutxiago dauka, honen barruan hemezortzi eta hogeita bederatzi urte bitartekoak %32,5-a adierazten dute eta hogeita hamar eta berrogeita lau urte bitartekoak aldiz %35,5-a. Bestalde, berrogeita bost eta hirurogeita lau urte bitartekoak %28,7-a adierazten dute eta hirurogeita lau urte baino zaharragoak %3,2-a.

³⁷ Panadero S., Vázquez J.J. (2016). *En las fronteras de la ciudadanía, situación de las personas sin hogar y riesgo de exclusión social en Madrid*. UAH <https://eprints.ucm.es/id/eprint/38547/1/EN%20LAS%20FRONTERA%20DE%20LA%20CIUDADANIA.pdf>

³⁸ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

³⁹ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*. <https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

Espainiar populazioaren datuak aldiz, hemezortzi eta hogeita bederatzi urte bitartekoak %9,8-a adierazten dute, %24,5-a hogeita hamar eta berrogeita lau urte bitartekoak, %57,8-a berrogeita bost eta hirurogeita lau urte bitartekoak eta hirurogeita lau urte baino zaharragoak direnak %7,8-a adierazten dute.

Beraz, lehen esan bezala, ikusi genezake espainiar populazioaren eta atzerriko populazioaren artean desberdintasunak daudela adinari dagokionez, orokorrean atzerritarren kasuan gehiengoak gazteak direlako eta aldiz espainiarren kasuan gehiengoak adineko pertsonak dira. Batz besteko adina dagokionez, 2012.urtean 42,7 kokatzen da, aldiz 2022-an 42,9-an.

Nazionalitatearen ezaugarriari dagokionez, 2005. urtean, etxegabetasun egeoran dagoen populazioaren artean %51,8-a espainiarra zen eta %48,2-a atzerritarrak. Atzerritarrak zirenetatik %16-a marokotarrak, %9-a erumaniarrak, %7-a aljeriarrak, %6-a portugesak eta %5-a boliviarrak ziren Cabrera, P. José, Rubio, M. José (2008)-ren datuen arabera.⁴⁰

Aldiz, 2012.urteko datuei erreparatzen badiegu %54,2-a espainiarrak ziren eta %45,8-a atzerritarrak. Atzerritarrei dagokionez, Afrika (%56,6), Europa (%22,3) eta Amerika (%15,2) dira gehien eratortzen diren lekuak

2022ko datuei erreparatzen badiegu, konturatzen gara urteekin atzerritarren eta espainiarren arteko proportzioa berdintsua dela, %49,9 atzerritarrak baitira eta %50,1 espainiarrak. Atzerritarren jaioterriari arreta jarrik gero ikusiko genuen 2012.urtean eman ziren leku berdinak direla, baina Amerikaren kasuan igoera eman da, %25,9-a adierazten baitute, Afrika %53,3-a eta Europa %16,7a.

Beraz ikusi genezake, urteen zehar atzerritarren eta espainiar nazionalitateen arteko etxegabetasun egoeran dauden pertsonen portzentaiak, nahiz eta aldaketa txiki batzuk izan ia berdindu mantendu direla.

Bestelako ezaugarrien artean duten **kontsumoa** da, alkoholari dagokionez, Panadero, S., Vázquez, JJ y Martín, RM (2017), *Alcohol, pobreza y exclusión social: Consumo de alcohol entre personas sin hogar y en riesgo de exclusión en Madrid.*

⁴⁰ Cabrera, P. José, Rubio, M. José (2008). Las personas sin hogar, hoy. *Revista de Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 75. 51-74 orr. https://www.researchgate.net/profile/Pedro-Cabrera-Cabrera/publication/28249079_Las_personas_sin_hogar_hoy/links/554b6006cf21ed2135933a3/Las-personas-sin-hogar-hoy.pdf

laneko datuak erabiliko ditugu⁴¹. Lanak hainbat item hartzen ditu, bere helburua alkoholaren gehiegizko kontsumoa izandako eta etxegabetasun egoeran dauden pertsonen eta alkoholaren gehiegizko kontsumorik izan ez dutenen arteko desberdintasunak azkertzea zen. Kontretuki, puntu honetarako garrantzitsuak izango diren itemak hiru izango dira soilik, baina ondorengo puntu batzuetan erabilitako beste item batzueie erreferentzia ere egingo diegu. Hasteko beraz, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasuna islatzen da, hau nabaria izanik, gizonezkoen artean %59,1-ak izan baitu gehiegizko kontsumoa (eta aldiz, %40,1-ak ez du inoiz izan gehiegizko alkohol kontsumorik) eta emakumezkoen artean %31-ak izan du (beraz %69-ak ez du inoiz izan alkoholaren gehiegizko kontsumorik).

Nazionalitatearen arte alderaketa ere egiten dute, datuen arabera Espainiarren %56,6-ak izan du noizbaiten alkoholaren gehiegizko kontsumoa eta aldiz atzerritarren %50,9-ak. Bukatzeko, garrantzitsua iruditzen zait ere gehiegizko kontsumoa izan dutenaren eta izan ez dutenaren arteko desberdintasuna etxegabetasun egoeran geratu diren aldiei dagokionez. Alkoholaren gehiegizko kontsumoa izan dutenaren artean portzentaia handiago bat nabaritzen da 1 eta 5 bider egon direlaren tartean eta baita ere 5 bider baino gehiago egon direlakoan. Alkohol gehiegizko kontsumoa izan dutenek lehenengo tartean %66,7-ko portzentaia izanik (gehiagizko kontsumorik ez dutenaren %33,3-aren aurrean) eta bigarren tartean %76,9-koa (%23,1-aren aurrean). (Taula 1)

⁴¹ Panadero, S., Vázquez, J.J y Martín, RM (2017). Alcohol, pobreza y exclusión social: Consumo de alcohol entre personas sin hogar y en riesgo de exclusión en Madrid. *Adicciones*, 29 (1), 33-36.

Taula 1. Inoiz izan duzu alkoholaren gehiegizko kontsumorik?

	Ha bebido en exceso en alguna época de su vida		t/x ²
	Sí (n=83)	No (n=100)	
Sexo			7,751**
Varón	59,1%	40,9%	
Mujer	31,0%	69,0%	
Edad (Media en años –DT–)	46,74 (9,614)	48,23 (14,822)	0,788
Nacionalidad			1,475
Español	56,6%	43,4%	
Extranjero	50,9%	49,1%	
Estudios terminados			4,698
Sin estudios o con estudios primarios incompletos	65,2%	34,8%	
Estudios primarios	65,1%	34,9%	
Estudios secundaria	49,5%	50,5%	
Estudios universitarios	45,5%	54,5%	
Número de veces en las que se ha encontrado sin hogar a lo largo de su vida			12,147**
1 vez	44,7%	55,3%	
De 1 a 5 veces	66,7%	33,3%	
Más de 5 veces	76,9%	23,1%	
Tiempo en la situación sin hogar sumando todos los períodos en que se ha encontrado en dicha situación (Media en meses –DT–)	89,15 (104,381)	78,34 (99,919)	-0,700
Estado de salud general percibido			11,680*
Muy bueno	35,0%	65,0%	
Bueno	50,0%	50,0%	
Regular	68,9%	31,1%	
Malo	62,5%	37,5%	
Muy malo	63,6%	36,4%	
Padecimiento de enfermedad grave o crónica reconocida médicamente	64,0%	36,0%	4,190*

Iturria: Panadero, S., Vázquez, J.J y Martín, RM (2017)

Bestalde azpimarragarria iruditzen zait ikustea benetan alkoholaren gehiegizko kontsumoak zein nolako eragina duen bakoitzaren osasunaren pertzepzioan, ondoren ikusiko dugun bezala Panadero S., Vázquez J.J. (2016) lanean⁴², etxegabetasun egoeran dauden pertsonen %50-ak aipatzen zuen bere osasuna ona edo oso ona dela, baina Taula 1-en ikusi genezake datuen arabera, gehiengoak modu txarrean edo oso txarrean pertzibitzen duela bere osasun egoera. Konkretuki, %62,5-an txarra dela aipatzen dute eta %63,6-an oso txarra. Parametro berdineko datuak inoiz alkoholaren gehiegizko kontsumoa izan ez duten pertsonen datuekin alderatzen badugu, soilik %37,5-a pertzibitzen dute txarra bezala eta %36,4-ak oso txarra bezala. Aldiz, osasun ona edo oso onaren parametroei erreparatzen badiegu, alkoholaren gehiegizko kontsumoa izan duten pertsonak soilik %35-an pertzibitzen dute beraien osasuna oso ona dela eta

⁴² Panadero Herrero, S. & Vázquez, J.J. (2016). *En las fronteras de la ciudadanía, situación de las personas sin hogar y riesgo de exclusión social en Madrid.* UAH <https://eprints.ucm.es/id/eprint/38547/1/EN%20LAS%20FRONTERA%20DE%20LA%20CIUDADANIA.pdf>

%50-an ona dela. Gehienizko kontsumorik izan ez duten pertsonen artean aldiz, %65-an pertzibitzen dute oso ona dela eta %50-an ona dela.

Bestalde, droga kontsumoari dagokionez, INE (2012)⁴³ ko datuei erreparatu beharra dago, hauen arabera, %62,7-ak inoiz kontsumitu ez duela adierazten du eta gainerako %37,3-ak noizbait kontsumitu duela aipatzen du. Eremu honetan ere, sexuen arteko desberdintasun nabaria ikusi ahal dugu, kontsumitzen duten emakumezkoen portzentaia gizonezkoarena baino txikiagoa baita, emakumezkoak %24,5 eta gizonezkoak %40,5.

Garrantzitsua da ere zer nolako **gizarte harremanak** dituzten edo izan zituzten ikustea. Hainbat ikerketa eta lanek adierazten udten bezala, etxegabetasun egoeran dauden pertsonak dituzten gizarte harremanak eskasak izaten dira. Honek eragin handia dauka pertsonetan eta batez ere hauen isolatze sozialaren prozesuan. Beraz gizarte harremanen gabezia etxegabetzaren funtsezko faktorea dela aipatzen da Domandzic, M. V. M. (2010), *'Nuevos perfiles de personas sin hogar en la ciudad de Barcelona: un reto pendiente de los servicios sociales de proximidad'*⁴⁴ lanean. Aipatutakoan gain, Panadero Sonia, Vázquez J. José (2016)⁴⁵ lanean datuen bidez adierazten digute zer nolako harremanak daukaten etxegabetasun egoeran dauden pertsonak, hala nola bikotea, familia, etxea duten lagunak eta etxerik ez duten lagunekin dutenak desberdinduz (Taula 2-n ikusi genezake PSH zutabea⁴⁶). Datuei erreparatuz gero beraz ikusiko genuen, %17-ak bikotea duela, %86,1-ak familiarekin harremanak dituztela eta lagunaren artean harreman gehiago dituztela etxerik gabekoekin, %60,8-koa izanik, etxea duten lagunekin baino, %51,3-a izanik.

Interesgarria iruditzen zait, lan honetan gainontzeko populazioarekin egiten duten konparaketa hori aztertzea ere. Kasu honetan, harreman sozial berdinak hartzen baditugu, alde handia dagoela ikusiko genuen. Populazio orokorraren kasuan, %83,1-ak bikotea duela ikusten dugu, %98,3-ak familiarekin harremanak dituztela adierazten da

⁴³ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*. <https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

⁴⁴ Domandzic, M. V. M. (2010). Nuevos perfiles de personas sin hogar en la ciudad de Barcelona: un reto pendiente de los servicios sociales de proximidad. *Documentos de trabajo social: Revista de trabajo y acción social*, (48), 9-30.

⁴⁵ Panadero S., Vázquez J. José (2016). *En las fronteras de la ciudadanía, situación de las personas sin hogar y riesgo de exclusión social en Madrid*.

⁴⁶ PSH: etxegabetasun egoeran dauden pertsonak

PR: arriskuan dagoen biztanleria.

PG: biztanleria orokorra.

ere, %98,8-ak etxea duten beste lagun batzuekin ere harremanak dituztela adierazten da bertan eta etxerik gabeko lagunekin silik %4,5-ak ditu harremanak.

Taula 2. Etxegabetasun egoera dauden pertsonen duten harreman sozialak

	PSH		PR		PG	
	n	%	n	%	n	%
Tiene...						
pareja	32	17,0%	71	43,6%	143	83,1%
familia	161	86,1%	145	89,5%	172	98,3%
amigos con hogar	96	51,3%	142	87,1%	167	98,8%
amigos sin hogar	113	60,8%	103	63,6%	7	4,5%

Iturria: Panadero S., Vázquez J. José (2016).

Gizarte harremangabeziarekin lotuta dagoen beste kontzeptu bat eta kontuan izan beharrekoa, etxegabetasun egoeran dauden pertsonen bakardade sentimendua da. Panadero S., Vázquez, J. José (2016) aipatzen denaren arabera,⁴⁷ konturatzen gara neurri handi batean etxegabetasun egoeran dauden pertsonak nahiko abandonatuak edo oso abandonatuak sentitzen direla, hauek %43,4-a adierazten baitute, aldiz abandonatuak sentitzen ez direnak edo gutxi %56,6-a adierazten dute. Nahiz eta abandonatuak sentitzen ez direnak edo oso gutxi sentitzen direnak gehiengoa izan, abandonatuak sentitzen direnaren portzentaia altuegia dela pentsatzen dut.

Aurrekari penalei dagokionez desberdindu egungo dugu beraiek biktima diren kasuak, beraiek delituak egiten dituzten kasuetatik. Esandakoa kontuan hartuz, lehenik beraiek biktima izan diren kasuak eta datuak aztertuko ditugu, 2012.urtean %51-a delituen biktima izan da, gehien eman direnak mehatxuak eta irainak (%65,4), lapurretak (%61,8), erasoak (%40,8) izanik. Garrantzitsua da eraso kontuan izatea eraso sexualen kasuan emakumezkoak %24,2-an jasan dutela eta gizonezkoen kasuan %1,5-a.

Beraiek delituaren bat egin duten kasuak aldiz, %44,7-ak atxilotua edo salatua izan dela eta horien ia erdia kondenatua izan dela noizbait. Kasu honetan egiten den

⁴⁷ Panadero S., Vázquez J. José (2016). *En las fronteras de la ciudadanía, situación de las personas sin hogar y riesgo de exclusión social en Madrid.* UAH <https://eprints.ucm.es/id/eprint/38547/1/EN%20LAS%20FRONTERA%20DE%20LA%20CIUDADANIA.pdf>

desberdintasuna nazionalitatearen araberakoa da, espainiarren proportzioa (%55,2) atzerritarrena (%32,3) baino handiago da kondenari dagokionez.

2022.urtean aldiz, biktima izan diren kasuei dagokionez %50,3-a delitu baten biktima izan da noizbait, gehiengoak irainak eta mehatxuak (%68,9), lapurretak (%65,2) eta erasoak (%39) izanik. Erasoen kasuan, gizonetzkoak (%39,9) emakumezkoak (%35,9) baino pixka bat txikiagoa da, baina eraso sexualen kasuan emakumezkoak (%21,9) gizonetzkoak (%4,5) baino gehiago dira.

Beraiek delituak egiten dituzten kasuetan, %44,9-an atxilotuak edo salatuak izan dira, horien %52,6-a kondenatuak izan dira. Nazionalitatearen araberako desberdintasuna eginez gero, espainiarrak (%57,1) atzerritarrak (%42,5) baino proportzio handiagoan izena dira kondenatuak noizbait.

Azpimarragarria da ere **lan arloan duten parte hartzea**, 2012.urteko datuen arabera, %77,8-a aipatzen du lanik ez izatea ezindua edo erretiraturik egon gabe, kontuan izan behar dugu portzentaia honen barruan sartzen direla lan bila dabilzan horiek zein lan bila ez dabilzanak. Adinaren araberako sailkapena eginez gero 18-29 urte bitartekoen %73,7-ak eta 45-64 urte bitartekoen %76,6-ak ez dauka lanik eta 30-34 urte bitartekoen %85,6-ak ere ez dauka enplegurik. Hala ere, orain arte aipatutako pertsonen %52,1-a enplegu bila dabil eta horietako %38-a bat eta hiru urte bitartean daramatzate enplegu bila, aldiz %17-a hiru urte baino gehiago. Bestalde, %3,6-ak lana dauka.

2022.urtearen datuei erreparatzen badiegu, %71,2-a enplegu gabe dago eta %5,4-a aldiz enplegua dauka. Urte honetan enplegu gabeziaren hainbat arrazoi azaltzen dira, %6,4-ak ezinduak daude, %4,1-a erretiratuak eta %12,9-a bestelako arrazoiengatik ez dute enplegurik. Adinaren araberako desberdintasunak ikusiz gero, konturatuko ginateke kasu honetan, langabezi tasarik altuena duten urte bitartea 30-34 urtekoak direla, hauek %76,6-a adieraziz. Ondoren 45-64 urte bitartekoak, %75-rekin eta bukatzeko 18-29 urte bitartekoak %63,3-a adierazten dute. Azpimarratzekoa da pertsona guztien erdia baino gehiagok adierazten dutela ez dabilzatela enplegu bila (%52,3). Lana ez bilatzeko arrazoiaren artean lehenik osasun arrazoiak agertzen dira, hauek %42,5-eko kasuak adieraziz eta beste %21,8-a paperen faltagatik dela azaltzen dute.

Bukatzeko **dituzten ikasketak** adierazi nahiko nuke pentsatzen baita orokorrean ikasketa gabekoak direla. 2012.urtearen arabera beraz %60,3-a bigarren hezkuntza lortu du, % 22,2-a lehen mailako edo beheragoko hezkuntza dauka eta %11,8-a goi-mailako ikasketak dituzte. Soilik %5,7-ak adierazten du ikasketa gabekoak direla, orokorrean ikasketetatik alderatu diren adinaren bataz bestekoa 15,5 urtekoa da.

2022. urteko datuei erreparatuz gero, %65-a bigarren hezkuntza lortu du, %23,8-a lehen mailako ikasketak edo beheragoko hezkuntza eta %11,3-a goi-mailako ikasketak ditu. Sexuen arteko desberdintasuna eginez gero, azpimarratzekoa da, emakumezkoen kasuan %12,4-ak unibertsitateko ikasketak dutela, gizonezkoak aldiz %7,7-a adierazten dute. Ikasketak uzteko adinaren bataz bestekoa 16,9-koa da, beraz 2012.urtearekin alderatuz gero ikusi genezake igoera eman dela.

2.2.3 Arrisku faktoreak

Aldez aurretik aipatu den bezala, faktore anitz egon ahal dira eta eraman ahal dute pertsona bat etxegabetasun egoera batean egotera. Fenomeno multidimentsional baten aurrean gaude eta beraz egoera oso desberdinak topatu ditzakegu, gainera parte hartu ahal duten edo bultzatzaileak diren faktoreak dimentsio anitzekoak izan ahal dira, hau da, pertsonalak, estrukturalak, instituzionalak eta erlazionalak. Beraz ulertu behar duguna da pertsona bat ez dagoela etxegabetasun egoera baten faktore bakar batengatik, orokorrean faktore anitzen elkarreraginak eramaten du pertsona bat etxegabetasun egoera batera.

Guzti hau azaldu ostean, faktore ohikoenak, aurreko atal batean aipatu dugun bezala, hurrengoak dira:

- Enplegu falta (%63an kasuetan ematen da).
- Diru gabezia (%26'1an ematen da).
- 'Paper' gabezia (%13,4an ematen da).
- Haustura afektiboa (%11,8an kasuetan ematen da).
- Alkoholaren kontsumoa (%7,6an kasuetan ematen da).

INE (2012) eta INE-ko (2022) *'Encuesta a las personas sin hogar'*⁴⁸ -en agertzen diren datuei erreparatuz gero, 2012. urtean hurrengoak izango ziren kausarik ohikoenak:

- 1) Enplegua galtzea (%45).
- 2) Ezin aurre egitea etxebizitzaren gastuari (%26).
- 3) Haustura afektiboa (%20,9).

Gehien ematen diren hurrengoak lurralde aldaketa (%13) eta kaleratzea (%12,1) izanik. 2022. urtean aldiz ohikoenak izan ziren kausak hurrengoak dira:

- 1) Beste lurralde batetik eratortzea eta bertan zerotik hasia (%28,8).
- 2) Enplegua galtzea (%26,8).
- 3) Kaleratzea (%16,1).

Gehien eman ziren hurrengo kausak ezin aurre egitea etxebizitzaren gastuei (%14,7) eta haustura afektiboa (%14,1) dira. Nazionalitatearen arabera desberdintasuna eginez gero, ikusiko genuen atzerritarren kasuan ohikoena 'beste lurralde batetik eratortzea eta bertan zerotik hasia' dela, %54,1-a adieraziz. Aldiz, espainiarren kasuan enplegua galtzea izan zen ohikoena, hau %26,7-a adieraziz.

Familia unitatea eta honekin izan duten harremana ulertzea ere garrantzitsua da, batzuetan eta datuak horrela erakusten digutenarengatik familia arazoengatik bukatzen dute etxegabetasun egoeran. Hori dela eta, 2012. urtean familia eremuko harremani dagokionez 18 urte arte familiak izan duen egoera %41,5-a diru gabezia da, %41,6-a familia-unitateko kide baten hiltzea, %36,3-a etxeko biolentzia bizi izan dute edo gurasoen arteko gatazka larriak bizi dituzte. Bukatzeko %23,6-a beraien gurasoetako baten gaixotasun larria bizi dute.

Bestalde familia eremuko aurrekariak ikusten baditugu, hurrengo datuak izango ditugu:

- %77,8-a 18 urte bete arte beraien gurasoekin bizi izan da.

⁴⁸ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*.
<https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>
Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*.
https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

- %8,8-a bere amarekin edo aitarekin soilik bizi da.
- %5,8-ak beraien aitona-amonekin edo bestelako familiako kide batekin bizi da.
- %4,2-a harrera-erakundeekin bizi izan da.
- %3,4-a familiako kidea ez den bestelako pertsona batekin bizi da.

2022.urteko datuak aldiz familia harremanak eta beraiekin izandako esperientzia aldatu egiten da. Etxegabetasun egoeran dauden pertsonen %45,1-a 18 urte arte bizitzen zuten egoera diru gabezia zen, beste %37,1-a familia-unitateko kide baten hilketa bizi dute eta beste %27,3-a familia-unitateko kide baten langabezia luzeegia. Horretaz gain %20-ak aipatzen du 18 urte arte arazorik gabeko familia eremu batean bizi dela adierazten dute.

Familia aurrekariak aztertzen baditugu hurrengo datuekin topatzen gara:

- %77,5-a 18 urte arte beraien gurasoekin bizi izan da.
- %10,7-a soilik beraien ama edo aitarekin.
- %5,8-a beraien aitona-amonekin.
- %3,9-a harrera-erakundeetan.
- %2,2-a beraien familia-unitateko kideak ez diren bestelako pertsonekin.

2.2.4 Osasun mentala eta etxegabetasuna

Garrantzitsua da ulertzea osasun mentalak eta etxegabetza harreman estua mantentzen dutela, hori dela eta bi egoera nagusi topatu ahal dugula. Alde batetik patologia mentala zuen pertsona bat, non, etxegabetasun egoerak alde aurretik zuen patologia hori okertzen duen, eta beste alde batetik, psikologikoki ondo zegoen pertsona batek etxegabetasun egoera dela eta egoera psikologikoa okertzea.

Beraz osasun mentala edo patologia mentalak izatea izan ahal etxegabetzaren ondorioetako bat baina baita ere pertsona batek alde aurretik izan ahal du patologiarenean bat eta etxegabetasun egoera horrek okertu egiten dio soilik. Panadero, S., Vázquez, JJ

(2016) datuei erreparatzen badiegu, lanean etxegabetasun egoeran dauden pertsonen zein nolako osasuna dutena ipatzen digute alde batetik eta bestetik ezintasunik pairatzen duten edo ez ere aipatzen digute⁴⁹. Osasunaren egoerari dagokionez, %50-ak adierazten du osasun ona edo oso ona duela, aldiz %25-ak adierazten du txarra edo oso txarra duela, geratzen den beste %25-a adierazten du osasun-egoera erregularra duela, hau da, ez ona ez txarra. Datu hauek biztanleria orokorraren datuekin alderatuz gero, desberdintasunak nabaritu genituzke, %81,1-ak adierazten baitu osasun-egoera ona edo oso ona dutela, aldiz soilik %1,1-ak adierazten du osasun-egoera txarra duela, kasu honetan inork ez du adierazi osasun-egoera oso txar bat duenik.

Ezintasunik pairatzen ote duten galdetu zitetenean, datuek esaten dute, %35,1-ak baiezkoa esan zuela, hauen artean ezintasun fisikoa nabariena izanik (%69,7) eta ondoren ezintasun mentala (%23,8). Bukatzeko ezintasun sensoriala pairatzen zutenak gutxiengoak ziren, hauek %15,1-a adieraziz.

Gaixotasun kronikoen eremuan murgilduz gero, %37,4-ak pairatzen dutela adierazten dute, kategoriarik nabarmenena patologia mentalak dira, kasu honetan %9,4-ari eragiten diete. Gizon zein emakumeetan dauka eragina, nahiz eta emakumezkoetan portzentai handiago baten ematen den, gizonen %9,1-a diagnostikoa dute emakumezkoen %10,7-rekin alderatuz. Patologia mentalen eremu zehatzean, %59,6-ak sintoma depresiboak dutela adierazten dute, emakumezkoen kasuan portzentaia %67,8-ra igotzen da. Azpimarratu beharra dago, ehuneko hauek biztanleria orokorraren ehunekoaren gainetik kokatzen direla, kontuan izanik 15 urte baino gehiago dituzten horien portzentaia %12,9-an kokatzen direla eta emakumezkoen kasuan %16,6-ra igotzen dira (INE, 2012)⁵⁰.

Etxegabetasunaren eta osasun mentalaren eremuan, aipagarria iruditzen zait, T. Ramos, Monica, A. Basauri, Victor, et al. (2003), *Prevalencia de Patología mentales entre población sin hogar* lana⁵¹. Honen bidez urteen zehar, konkretuki 1985-2003 urte

⁴⁹ Panadero Herrero, S. & Vázquez, J.J. (2016). *En las fronteras de la ciudadanía, situación de las personas sin hogar y riesgo de exclusión social en Madrid*. UAH <https://eprints.ucm.es/id/eprint/38547/1/EN%20LAS%20FRONTERA%20DE%20LA%20CIUDADANIA.pdf>

⁵⁰ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*. <https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

⁵¹ T. Ramos, Monica, A. Basauri, Victor, et al. (2003). Prevalencia de Patologías mentales entre población sin hogar. *Cuadernos de Psiquiatría Comunitaria*, Vol 3, N°2, pp. 129-147. [fdcc55a159d34c/Caracteristicas-de-las-personas-sin-hogar-en-Espana-30-anos-de-estudios-empiricos.pdf#page=23](https://doi.org/10.1016/S1579-1389(03)00023-3)

bitartean etxegabeen artean patologia mentalen prebalentziaren bibliografia desberdinen inguruko datuak biltzen eta azaltzen ditu. Konkretuki 38 lan aukeratu ziren, bi gauza izan behar dugu kontuan datuak aztertzen hasi baino lehen, lehenik eta behin, egindako bibliografia bilketan populazio Amerikarra zein Europearra hartzen da kontuan eta ebraz bi herrialdeen arteko desberdintasunak ere aipatzen dira. Bigarrenik, esatea alde batetik emakumezkoen zein gizonezkoen datuak jorratzen zituzten lanak aukeratu zituzten eta beste alde batetik soilik emakumezkoen eta soilik gizonezkoen datuak jorratzen zituztenak. Modu honetan generoen arteko desberdintasunak ere aztertu ahal izango dira.

Behin guzti hau azaldu ostean, bi generoak barnebiltzen dituzten hainbat ikerketen datuei erreparatuz gero, konturatuko ginerte hasiera batean Amerikako patologia mentalen prebalentzien tasak handiagoak direla (%40-%60) Europakoak baino (%30-%40). Europaren kasuan, hurrengoak lirateke gehien ematen diren patologia mentalak:

- Alkohol eta drogen abusu/ menpekotasun nahasmenduak.
- Nahasmendu afektiboak (% 22,26)
- Nahasmendu psikotikoak (% 14,65)

Hainbat artikulu Europear desberdinek islatzen duten datu batzuk aztertuko ditugu, horretarako Taula 3 eta Taula 4 izango ditugu kontuan.

Taula 3 Artikulu Europearrak, gizonezkoen datuak soilik.

	FICHTER (1996)	J.BREMNER (1996)	FICHTER (2001)
LUGAR	Albergue/cocina/calle Munich	Hostal London	Albergue/comedor/calle Munich
MUESTRA	N:146	N:62	N:265
MÉTODO DE EVALUACIÓN	DIS MMSE	WAIS Kraviecka GHQ-28 MMSE C.Semiestructurado	SCID
DISEÑO DE INVESTIGACIÓN	Una Fase	Una Fase	Una Fase
ANTECEDENTES PSIQUIÁTRICOS	50,3 %	-	-
DIAGNÓSTICO	DSM-III	DSM-III-R	DSM-IV
% PREVALENCIA	94,5 %	61,3 %	93,2 %
T. AFECTIVOS	41,8 %	6,5 %	32,8 %
T. PSICÓTICOS	12,4 %	17,7 %	9,8 %
DETERIORO COGNITIVO	8,9 %	1,6 %	9,9 %
T. ANSIEDAD	22,6 %	4,8 %	15,9 %
T. DEPENDENCIA/ ABUSO ALCOHOL	91,1 %	14,5 %	78,2 %
T. DEPENDENCIA/ ABUSO OTROS TÓXICOS	17,8 %	-	19,1 %

Iturria: T. Ramos, Monica, A. Basauri, Victor, et al. (2003).

Taula 4. Artikulu Europearrak, emakumezkoen datuak soilik.

	E. MARSHALL (1992)	E. ADAMS (1996)	GREIFENHAGEN (1997)
LUGAR	Hostales (Londres)	Hostal (Londres)	Albergue, comedor, calle (Munich)
MUESTRA	N:70	N:60	N:32
MÉTODO DE EVALUACIÓN	Entrevista semiestructurada Krawiecka BPRS	SCID-PD, GHQ, SBS, MS, MMSE	DIS MMSE
DISEÑO DE INVESTIGACIÓN	Una Fase	Una Fase	Una Fase
ANTECEDENTES PSIQUIÁTRICOS	67,14 %	-	59 %
DIAGNÓSTICO	DSM-III-R	DSM-III-R	DSM-III
% PREVALENCIA	90 %	50 %	94 %
T. AFECTIVOS	3 %	8 %	47 %
T. PSICÓTICOS	64,3 %	42 %	34 %
DETERIORO COGNITIVO	4,3 %	-	0 %
T. ANSIEDAD	-	-	28 %
T. DEPENDENCIA/ ABUSO ALCOHOL	10 %	7,8 %	56 %
T. DEPENDENCIA/ ABUSO OTROS TÓXICOS	5,7 %	21,8 %	22 %
T. PERSONALIDAD	-	19 %	-

Iturria: T. Ramos, Monica, A. Basauri, Victor, et al. (2003).

Datuak ikusi ondoren, ikusi genezake emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasun anitzak daudela, azpimarragarrienak hurrengoak izanik:

- Gizonezko populazioaren artean Alkohol eta drogen abusu/ menpekotasun nahasmenduak, nahasmendu afektiboak eta antsietate-nahasmenduak gehien ematen dira.
- Aldiz emakumezkoen populazioaren artean, nahasmendu psikotikoak nabarmentzen dira.

2.2.5 Etxegabe egotearen ondorioak

Etxegabetasunak ondorio askotarikoak ekartzen du egoera horretan dauden pertsonetan, bai beraien osasunean, baita bere buruarekiko duten pentsamenduetan, beraien harremanetan... Hori dela eta hurrengo parrafoetan ondorioetako bakoitza azaltzen arituko gara.

Lehenik eta behin, **osasunean** duen eragina aztertuko dugu. Kontuan izan behar dugu kolektibo honek baldintza edo egoera batzuen aurrean zaurgarriagoak direla biztanleria orokorrarekin alderatuz. Hori dela eta arrisku handiagoa dute gaixotuak egoteko edo delituen biktimak izateko besteak beste.

Bestalde AIRES, asociación para la inclusión residencial y social (2022) '*entender el sinhogarismo*'-artikuluari aipatzen da ere pertsona hauek eraso fisiko, psikologiko zein sexualak pairatzeko arrisku handiagoa dutela ere⁵². Aldez aurretiko puntuetan ikusi dugun bezala, erasoak, mehatxuak eta irainak eta lapurretak pairatzen dute besteak beste, gaur egunean gainera pobrezia egoeran dauden pertsonen aurkako erasoak aporofobia⁵³ bezala ezagunak dira.

Autopertzeptzioari dagokionez, kontuan izan behar dugu, gizarte bezala jada etiketa eta estigma batzuk jartzen diegula eta beraz, poliki-poliki etxegabe dauden pertsonak etiketa horiek bereganatzen dute eta propioak bihurtzen dute. Azaldu dudana etiketatzearen teoriak azaltzen du, baina ez gara gehigi sartuko etiketa zein estigmatan, hurrengo puntu batean garatuko baitira sakonki, baina garrantzitsua da hauek kontuan hartzea eta baita ere kontuan izatea, hauek eragina dutela beraien autopertzeptzioan.

Harreman sozialei dagokionez, azpimarratzekoa da etxegabetasun egoera batean dauden pertsonak ez dutela hareman askorik izaten, familia, lagunak askotan ere egoten

⁵² AIRES, Asociación para la inclusión residencial y social. (2022). *Entender el sinhogarismo*. <https://airesasociacion.org/entender-sinhogarismo/>

⁵³ Pobrezia egoeran dauden pertsonengan gorrotoa, abertsioa edo arbuioa da. (RAE, 2017)

baitira egoera ezegonkor batean. Hori dela eta, nahiz eta beraiekin harremana izaten jarraitu, ez da ahikoa etxegabetasun egoeran dauden pertsonentzat gizarte-babesa sentitzeko.

Datuei erreparatuz gero, %55,7-ak gizarte-babes eskasa dutela adierazten dute, beste %33,5-a gizarte-babes ertaina dutela adierazten dute eta beste %7,2-ak soilik adierazten du gizarte-babes altua / handia dutela, FACIAM (2022), '*Más allá de la vivienda. Relaciones sociales y sinhogarismo*' txosteneko datuen arabera.⁵⁴ Txostenaren zehar etxegabetasun egoeran dauden pertsonen testigantzak agertzen dira eta hauek adierazten duten bezala laguntza eskatzeko zailtasunak izaten dituzte beraien harreman sozial faltagatik. Datuen arabera %22-ak laguntza eskatu ahal izateko inor ez duela adierazten du, aldiz %43-ak pertsona bat edo bi daukela adierazten du. Honek ere bakardade sentimenduaren areagotzea ekartzen du.

2.2.6 Etxegabe dauden pertsonen inguruko gizarte pertzepzioa

1. AZALPEN TEORIKOAK

Azken urteetan, hainbat iturri desberdineko datuek esaten duten bezala, etxegabetasun egoeran dauden pertsonen kopuruaren igoera bat eman da. Esaterako INE-k bere 2021.urteko eta 2022.urteko txostenak⁵⁵ hurrengo datuak ematen digute:

- 2022.urtean, 28.552 pertsona izan ziren zentroetan atentzioa izan zutenak. Gogoratu beharra dago Hogar Sí-ren aburuz beste %30-a gehitu behar zaiola eta beraz 37.117 pertsona izango ziren benetan gutxi gora-behera etxegabetasun egoeran daudenak.
- Beste urte batzuetako datuekin alderatuz gero, konturatuko ginатеke, 2012.urtean 22.938 pertsona zirela eta 2005.urtean 21.900. (Grafiko 3)

⁵⁴ Ayuso, M.E, et al. (2022), *Relaciones sociales y sinhogarismo*. Más allá de la vivienda, Red FACIAM, 16-19 orr.


⁵⁵ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*.

https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*.

<https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

Grafiko 3. Espainian ostatu eta jabetxeetako laguntza-zentroetan artatzen diren etxerik gabeko pertsonak.



Iturria: Epdata (2022), INE (2022) tik ateratako datuekin.⁵⁶

Hau faktore askotarikoak direla eta izan da, aldez aurretik aipatutako faktoreak beraz kontuan izan behar dugu etxegabetasunaren fenomeno a ondoko ulertu ahal izateko.

Dakigun bezala, etxegabetasuna betidanik existitu izan den fenomeno bat da, historian zehar hainbat modu desberdinetan ikusi ahal dugu. Gaur egunean ez da zigortzen etxegabetasun egoera batean egoteak, baina antzina, konkretuki XX.mendearen urrutzean, atxikitze eta kontrol neurriak ezartzen ziren 1933. urteko abuztuak 4-an sorturiko *'Ley de vagos y maleantes'* bidez. Esan bezala, ezartzen ziren neurriak gizartearentzako kaltegarriak edo arriskutsuak (beraien bizimoduarengatik) ziren gizabanakoei bideratuta zeuden, eta beraz Sánchez Morales-en (2012)⁵⁷ aipatzen duen bezala, ulertu genezake baliabiderik eta errekurtso nahikorik ez zuten pertsonen ere bideratzen zutela, kasu honetan etxegabeei. Beraz guzti hau esan ondoren, esan genezake *'Ley de vagos y maleantes'* hurrengo gizabanakoei bideratutako neurriak ezartzen zituztela:

⁵⁶ Epdata (19 de octubre de 2022). *¿Cómo es el perfil de las personas sin hogar en España?*. Personas sin hogar en España, en gráficos. <https://www.epdata.es/datos/centros-servicios-atencion-personas-hogar-datos-graficos/452#:~:text=Un%20total%2028.552%20personas%20sin.tiene%20menos%20de%2045%20a%C3%B1os>.

⁵⁷ Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2012). *En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España*.

1. Etxegabeak.
2. Nomadak.
3. Arloteak.
4. Proxenetak.
5. Antisozialtzat hartzen ziren bestelako gizabanakoak.

Ildo honetatik jarraituz gero, konturatuko ginateke kolektibo bezala diskriminazioa, mespretxua eta eskubide urrapena jasaten dutela besteak beste. Beraien eskubideak larriki urratuak eta murriztuak izaten dira gaur egunean ondorengo atal batean azalduko dugun bezala. Gainera, diskriminazioak aurpegi desberdinak edo ikuspuntu desberdinak dituela ikusiko dugu eta baita arreta jarriko dugu etxegabeek, kolektibo bezala, diskriminatuta sentitzen diren edo ez. Aipatutakoaz gain, gizarteak zer nolako joerak izaten dituen ere aztertuko ditugu.

Aldez aurretik azaldu den bezala, etxegabetasunak gizarte bazterkeriaren aurpegirik larriena erakusten du, baina ez dugu soilik kontuan hartu behar etxea ez duten pertsona horiek eta beraz kalean bizi direnak. Etxegabe tipologiaren barruan kategoriaz askotarikoak daude, hauek desberdinak izan ziren ETHOS tipologiaren arabera⁵⁸, non honen arabera lau kategoriaz desberdinak genezaken, hauek hurrengoak dira:

- 1) Etxegabea.
- 2) Etxebizitarik gabekoa.
- 3) Etxebizitza ez-segurua.
- 4) Etxebizitza desegokia.

Garrantzitsua da hau azpimarratzea, azkenean gizarteak etxegabetasunaren inguruan hitz egiten duenean edo honen inguruan galdetzen zaionean soilik etxegabe

⁵⁸ ETHOS tipologia FEANTSAk (Federación Europea de Asociaciones que trabajan con Personas Sin Hogar) sortutako tipologia da, honen helburua irtenbide zehatzak eta eraginkorrak ematea da, batez ere A eta B (etxegabea eta etxebizitarik gabekoa) kategorian dauden pertsonen zuzendutakoak. Baita ere C eta D (Etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia) kategorien barruan kokatzen diren pertsona horien zuzendutako prebentzio-ekintzak gauzatu ahal izatea.

FEANTSA (2015). *Estrategia Nacional Integral para Personas Sin Hogar 2015-2020*. https://www.feantsa.org/download/eni-psh_2015-20204733070623908829170.pdf

edo etxebizitzarik gabeko pertsonetan pentsatzen baitute. Beraz kontzeptu zabalago baten pentsatu behar dugu etxegabetasunaren inguruan hitz egiten dugunean.

2. ETXEGABETASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN INGURUKO PERTZEPTZIO DATUAK

Datuei erreparatzen badiegu ikusi genezake azken urteetan **etxegabe dauden pertsonen igoera** eman dela, aldez aurretik esan bezala eta INE (2022)-ko⁵⁹ datuak zein Provivienda (2022)⁶⁰ hartuz gero, azken urteetan %24,5eko igoera eman da. Honekin batera, beste hainbat inkestetan izandako datuak ere erakusten dute gizartearen gehiengoa (%76,55) pentsatzen eta pertzibitzen dutela etxegabe dauden pertsonen kopurua igo dela, hala esaten du Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2012)⁶¹ *‘En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España’* artikuluan.

Konkretuki Euskal Autonomia Erkidegoko datuei erreparatzen badiegu, Eustat (2022), *‘Encuesta sobre personas sin hogar (EPSH) 2022’*-en⁶² aipatzen denaren arabera, etxegabetasun egoeran, Euskadin 4.456 pertsona daudela estimatzen da. Datuak 2012.urtekoekin alderatuz gero ikusiko genuen %113-ko igoera bat eman dela, urte honetan 2.090 pertsona baitzeuden.

Azpimarratzekoa da, gizarte bezala **ezaugarri eta aurreiritzi** batzuk ditugula etxegabe dauden pertsonen inguruan, honek estereotipo batzuk sortzen ditu eta beraz kolektibo osoari ezartzen dizkiegu ezaugarri berdinak. Garrantzitsua da ere esatea, ezartzen dizkiegun **estereotipo** / ezaugarri horiek orokorrean negatiboak izaten direla eta beraz horrek laguntzen du gaur egunean kolektibo honen inguruan dagoen **irudikeria negatibo** hori sortzen eta urteen zehar mantentzen. Hori dela eta, hurrengo parrafoetan beraiekiko ditugun estereotipoez zein ezaugarriez hitz egiten arituko gara.

Hasteko, **profilaren** inguruan hitz egingo dugu, kasu honetan ezartzen dizkiegun ezaugarriak eta beraz etxegabe dagoen pertsona baten pentsatzen dugunean egiten

⁵⁹ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*.
https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

⁶⁰ Provivienda (2022). *El sinhogarismo, una grave problemática en aumento*.
<https://provivienda.org/observatorio/datos-sinhogarismo-espana/>

⁶¹ Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2012). *En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España*.

⁶² Euskal Estatistika Erakundea (2022). *Encuesta sobre las personas sin hogar (EPSH) 2022*.
https://www.eustat.eus/elementos/se-estima-en-4456-las-personas-sin-hogar-en-la-ca-de-euskadi-en-2022-y-el-724-es-de-nacionalidad-extranjera/not0020166_c.html#:~:text=L

dugun irudi mentalak zer nolako ezaugarriak dituen aztertuko ditugu. Hauek hurrengoak izango dira Sánchez Morales-en (2012)⁶³ arabera:

- 1) Gizonezkoa.
- 2) Adin ertainekoa.
- 3) Atzerritarra.
- 4) Banandua (Honen barruan sartzen dira bikotekiderik ez dutenak, alargun daudenak, ezkongabeak eta dibortziatuak).
- 5) Lanik gabekoa.
- 6) Ikasketa gabekoa edo ikasketa maila baxua dutenak.

Jarraitzeko, interesgarria iruditzen zait artikulu berak ematen digun **gizarte pertzepzioa** etxegabetasun egoera dauden pertsonetikiko, artikuluan esaten duenaren arabera, hurrengoak izango ziren gizarteak dituen estereotipo zein pertzepzioak:

- 1) Soilik gizonezkoak dira.
- 2) Adin zaharrekoak dira.
- 3) Ez dute ikasketarik ezta kulturarik ere.
- 4) Gehienek alkoholarekin arazoak dituzte.
- 5) Gehienek drogekin arazoak dituzte.
- 6) Gehienek gaixo mentalak dira.
- 7) Kanean daude beraien bizi-filosofia gisa.
- 8) Segurtasunik ezaren iturri dira.
- 9) Delitugileak dira.
- 10) Edonori pasatu ahal zaio kanean gelditzea.
- 11) Laguntza publiko asko jasotzen dituzte.

⁶³ Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2012). *En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España*.

12) Saihestu ezin den arazo bat da.

Beraz, goian dagoen zerrenda hori erabiliko dugu gizarte pertzepzioa aztertu ahal izateko, nahiz eta ez dugun guztietan erreparatuko. Hasteko, aipagarria iruditzen zait **genero** aldetik egiten dugun **begirada**, nahiz eta esan beharra dagoen, emakume etxegabeen fenomenoak **problematika propio** bat daukala eta gure kasuan ez dela lan honen helburuetako bat, beraz ez dugu gehiegi sakonduko aspektu honetan. Behin hau argitu ondoren, kontuan izan behar dugu errealitateak eta datuek esaten diguten arabera, egia dela proportzioan askoz **gizon** gehiago (%76,7) daudela **emakumeak** baino (%23,3), baina horrek ez du esan nahi etxegabe dauden emakumeak ez daudenik, agian bestelako errekurtso batzuk edo bide batzuk erabiltzen baitituzte aurrera irten ahal izateko. Beraz hasteko ikusten dugu zerrenda horren **lehen ideia okerra** dela.

Jarraitzeko, duten **ikasketa mailan** erreparatuko dugu. Aldez aurretiko atal batean jada honen inguruan hitz egin genuen, beraz ez dugu berriz datu guztiak aztertuko. Soilik azpimarratuko dugu, ehuneko handi batek (%65) bigarren mailako ikasketak egin dutela eta nahiz eta ikasketak utzi zuten batzuetan besteko adina 16,9-an kokatzen den, badaude etxegabetasun egoeran dauden pertsonak zeinak unibertsitateko ikasketak dituzten ere. Beraz orokorrean erdi mailako ikasketak dutela esan genezake, eta zerrendan agertzen den **bigarren ideia okerra** dela esango dugu.

Interesgarria iruditzen zait ere, **etxegabe dauden pertsonen eta droga menpekotasunaren** artean dagoen harremana eta honekiko dugun pentsaera. INE (2022) *'Encuesta a las personas sin hogar'*-en⁶⁴ azaltzen den bezala, soilik %3,9-ak adierazten dute droga edo alkoholarekin arazoak dituztela, eta beraz gehiegizko kontsumoa dute. Hala ere gizarteak droga edo alkohol arazoengatik bukatzen dutela kalean pentsatzen du eta beraz etxegabe egoera batean amaitzeko lehenengo edo lehenengotariko kausa bihurtzen da gizartearen begiradaren aurrean. Nahiz eta ikusi dugun bezala aurreko atalen batean, droga eta alkohol gehiegizko kontsumoa etxegabe egoeran bukatzeko bosgarren kausa izango litzatekeela.

Honekin batera, beraien **osasunaren** inguruan ere irudi negatiboa daukagu orokorrean, ez bakarrik **osasun fisikoan** baizik eta **osasun mentalean** ere. Aldez aurretik gertatu den bezala, hau ere aurreko atal batean azaldu dugu, hori dela eta, esatea

⁶⁴ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

soilik %9,4-ak adierazten duela patologia mentala dutela, hau handiagoa izanik emakumezkoetan gizonekoetan baino, INE (2022)⁶⁵ esaten den bezala. Osasun fisikoari dagokionez, %55,8-ak adierazten du bere osasun fisikoa ona edo oso ona dela, beraz gaixo mentalak diren ideia hori zein osasun fisiko txarra dutena okerra dela ikusi genezake ere.

Aztertu beharreko beste faktore bat **ematen dieten laguntzak** dira, gizarteko pertsona batzuek pentsatzen baitute gehiegizko laguntzak ematen direla etxegabe dauden pertsoneri. Eskaintzen diren laguntzak askotarikoak dira eta beraz eremu desberdinak eta behar desberdinak asetzeko eginak daude, baina horrek ez du esan nahi dauden laguntzak nahikoak direnik fenomenoari aurre egin ahal izateko. Gainera, Hogar SI-k adierazten duen bezala, horrela aipatzen baita Europapress (2022) '*Hogar Sí tacha de "alarmantes" los nuevos datos de sinhogarismo en España y urge a las administraciones a tomar medidas*' artikuluan⁶⁶, gaur egunean **ez daude baliabide nahikorik etxegabetasun egoeran dauden pertsonen nahi edo behar guztiei aurre egin ahal izateko**, Hogar SI-k horrela adierazten du:

"Teniendo en cuenta esto, estaríamos ante un sistema de atención incapaz de dar cobertura a todas las personas"

Horretaz gain, garrantzitsua da ere jakitea, benetan **ematen diren laguntzak baliagarriak** diren edo beste laguntza mota batzuk eskaini beharko litzateken. Cabrera, P. (2009) aipatzen den bezala⁶⁷, etxegabetasun egoeran dauden pertsonak ematen diren laguntzak ez dietela ezertan lagundu edo oso gutxi lagundu dietela diote, hau argi eta garbi ikusten da 'grafiko 4'-an. Gaur egunean nahiz eta datu horiek pixka bat aldatu, Hogar SI eta INE-k aipatzen diguten bezala, etxegabe dauden pertsonen artean ehuneko garrantzitsu batek (%38,2) adierazten du laguntzak ez diotela balio edo ez asko, honekin batera %80,2-ak **beharrezkotzat** ikusten dute egoeratik irten ahal izateko **etxebizitza bat izatea**, non beraien **autonomia** duten eta poliki-poliki beraien bizitza berregiten hasten diren.

⁶⁵ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

⁶⁶ Europapress (2022). *Hogar Sí tacha de "alarmantes" los nuevos datos de sinhogarismo en España y urge a las administraciones a tomar medidas*. <https://www.europapress.es/epsocial/derechos-humanos/noticia-hogar-si-tacha-alarmantes-nuevos-datos-sinhogarismo-espana-urge-administraciones-tomar-medidas-20221019142254.html>

⁶⁷ Cabrera, P. (2009). La acción social con personas sin hogar en la España del siglo XXI. *Exclusión social en España: Un espacio diverso y disperso en intensa transformación*, Madrid: Fundación Foessa, 173-219.

Azken ideia honetan Hogar SI eta bestelako erakunde batzuk ados daude eta orain dela urte batzuk atzera hasi ziren *Housing First* deituriko programa aplikatzen beraien interbentzioetan. Aipaturiko programa laburki azalduz gero, esango genuen etxebizitza bat eskaintzen dietela profil zehatz bat betetzen duten pertsonen, non beraiek ere bete beharko dituzten arau eta betekizun minimo batzuk bertan egoteko. Honen inguruan hurrengo atalean hitz egingo dugu, baina ideia nagusia hori da, etxegabetasun egoera baten dagoen pertsona bati espazio seguru bat ematea, etxebizitza izango dena, eta bertan beraiek bere autonomia izan dezaten. Honen inguruan eta arazoari aurre egin ahal izateko, hurrengo esaten du José Manuel Caballol, Hogar Sí-ren zuzendari nagusiak⁶⁸:


"Solo con un liderazgo público, traducido en políticas transformadoras que pongan la vivienda en el centro y estén acompañadas de un presupuesto adecuado, se podrá realizar un verdadero cambio de modelo que permita que ninguna persona viva en la calle en nuestro país"

Grafiko 4: Gizarte Zerbitzuek emandako laguntzen inguruko iritzia

Opinión sobre la ayuda recibida de los Servicios Sociales

("Dígame, en su opinión, si los Servicios Sociales le han ayudado...")

(Elaboración propia. Fuente: INE 2005)



Iturria: Cabrero, P. (2009), INE (2005)-tik ateratako datuekin.

⁶⁸ Europapress (2022). Hogar Sí tacha de "alarmantes" los nuevos datos de sinhogarismo en España y urge a las administraciones a tomar medidas.

<https://www.europapress.es/epsocial/derechos-humanos/noticia-hogar-si-tacha-alarmantes-nuevos-datos-sinhogarismo-espana-urge-administraciones-tomar-medidas-20221019142254.html>

Bukatzeko **kriminalitatea edo justiziarekin duten harremanaz** hitz egin nahiko nuke. Datuei erreparatuz gero, ikusiko genuen beraien ehuneko handiago batean izan direla delitu baten biktima, delitugile izan direna baino edo behintzat salatuak izan diren kasuak baino gehiago. Egia da %44,9-ak adierazten duela noizbait salatuak edo atxilotuak izan direla, aldiz, %50,3-ak adierazten du delitu baten biktima izan dela. Beraz bai, delituak egiten dituzte baina ezin dugu orokortu kolektiboari esanez delitugileak direla.

Estereotipo edo gizarte pertzepzio desberdinak **errealitatearekin eta datuekin** alderatu ostean, ikusi genezake irudikeria negatibo bat dugula kolektibo honekiko eta ezartzen dizkiegun ezaugarriak negatiboak direla bere osotasunean. Gainera, frogatu ahal izan dugun bezala, horietako **asko edo gehienak okerrak** dira.

3. GIZARTE JOERAK

Garrantzitsua da jakitzea **gizarteak zer nolako erreakzioa** eta zer nolako **joerak** dituen fenomeno honekiko eta etxegabe dauden pertsonetikiko. Aldez aurretik aipatu bezala, kolektibo honen eskubideak larriki urratuak eta murriztuak izaten dira eta beraien aurkako gorroto-delituak ere burutzen dira. Garrantzitsua iruditzen zait ere beraien esperientziaz jakitea eta beraz interesgarria da jakitzea beraien zela hautematen duten diskriminazio hori. Beste alde batetik, gizartearen pertzepzioa izango dugu, alde batetik deseroso sentimenduaren inguruan hitz egiten ariko gara, hau da, jendea zela sentitzen den etxegabe dauden pertsonen kaleko presentziari dagokionez. Azkenik, etxegabe geratzearen kausen inguruko pertzepzioaz hitz egingo dugu, aldez aurretik esan bezala, gizarteak gehienetan etxegabetasun egoera baten bukatzeak droga eta alkoholarekiko menpekotasunarekin lotzen du, ikusi dugun bezala, hau bai da kausa bat baina ez da bakarria ezta gehien ematen dena.

Guzti hau kontuan hartuta, hurrengo parrafoetan, alde batetik etxegabeek jasaten duten **diskriminazioaren, gorroto-delituak** aipatuko ditugu. Eta beste alde batetik **gizartearen deseroso sentimenduaren eta etxegabetasunari lotzen zaizkien kausen** inguruan hitz egiten ariko gara.

a) ETXEGABEEN AURKAKO DISKRIMINAZIOA ETA GORROTO-DELITUAK

Hasteko, jasaten dituzten gorroto-delituen inguruan hitz egingo dug. Hogar Sí, Observatorio de delitos de odio, HATENTO-n⁶⁹ aipatzen den bezala, etxegabe dagoen populazioaren %47-ak noizbaiten jasan ditu eta %81-ak behin baino gehiagoetan. Ehunekoetan erreparatzen badugu, nire aburuz, kezkarriak diren zifrak dira, honi gehitzen badiogu gizartearen joera %68-ko kasuetan dela gorroto-delitu baten aurrean ezer ez egitea, oraindik eta kezkarriagoa bihurtzen da egoera.

Aurreko parrafoan aipatutakoa guztiz lotuta dago jasaten duten **diskriminazioarekin**. Gizarte bezala, aurreko atal batean aztertu dugun bezala, pentsatzen da **laguntza** gehiegi ematen zaiela etxegabetasun egoeran dauden pertsoneri, baina gakoa da ematen diren laguntzak kolektiboaren zati garrantzitsu batentzako ez direla nahikoak edo lagungarriak. Hori dela eta, pertsona askorentzat ez da nahikoa bere beharrak asetu ahal izateko eta gainera ez dira nahikoak ere egoera horretatik atera ahal izateko.

Jasaten duten diskriminazioaren beste ikuspegi bat da pertsona hauei urratzen zaizkien eskubideak. Kasu honetan gizarteak eta gizarteko instituzio berak diskriminatzen die eta beraien oinarritzko eskubide batzuk urratzen dizkie, nolabait gainontzeko populazioak duen aukerak edo sarbide aukerak, etxegabeei murrizten zaie. Besterik gabe, **urratzen zaiezkieen eskubide** batzuk aipatuko ditut⁷⁰:

- 1) Etxebizitzarako eskubidea.
- 2) Enplegu eskubidea.
- 3) Osasunerako eskubidea.
- 4) Tratu-berdintasunerako eskubidea.
- 5) Duintasunerako eskubidea.
- 6) Segurtasunerako eskubidea.

Ikusi genezaken bezala, soilik batzuk aipatuz asko dira eskubideen eremuan.

⁶⁹ Hogar Sí, Fundación Rais (2017). *Contra personas en situación de sinhogarismo*. Hatento, observatorio de delitos de odio <https://hogarsi.org/hatento/>

⁷⁰ Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2010). *Las personas 'sin hogar' en España*.

Orain arte aipatutakoaz gain, garrantzitsua ikusten dut diskriminazio honen aurrean **etxegabeek duten diskriminazio sentimenduz**, INE (2012)⁷¹ hurrengoa azaltzen da:

- Elkarrizketatu izan dituzten pertsonen artean, %26,8-ak diskriminazioaren sentimendua gutxitan sentitzen dutela adierazten dute.
- Bestalde, %13,7-ak nahiko maiz sentitzen dutela eta %9,8-ak diskriminazio sentimendua askotan sentitzen dutela adierazten dute.
- Bukatzeko %49,8-ak adierazten du inoiz ez dutela diskriminazio sentimendua izan.

Aldiz 2022ko datuei erreparatzen badiegu, INE (2022)⁷² hurrengoa adierazten du:

- %25,5-ak adierazten du gutxitan sentitzen dutela diskriminazio sentimendua.
- Bestalde, %13,7-ak adierazten du askotan sentitzen dutela diskriminazio sentimendua eta beste %7,1-ak diskriminazio sentimendua etengabe sentitzen dutela adierazten dute.
- Bukatzeko, %53,55-ak adierazten du inoiz ez duela diskriminazio sentimendua izan.

b) ETXEGABETASUNARI LOTUTAKO KAUSEN PERTZEPTZIOA ETA DESEROSOTASUN SENTIMENDUA

Hasteko, Sánchez Morales-ek (2012)⁷³ adierazten duen bezala, gizartea orokorrean **deseroso sentitzen** da etxegabe dauden pertsonen kaleko presentziari dagokionez. Konkretuki %43,19-ak adierazten du ez direla eroso sentitzen, beste %17,53-ak adierazten du egoera batzuetan deseroso sentitzen dela, baina beste batzuetan aldiz ez eta beste %32,7-ak adierazten du ez direla deseroso sentitzen (Grafiko 5).

Grafiko 5. Deseroso sentitzen zara etxerik ez duten pertsonak egotean normalean eguna igarotzen duzun lekuan edo udalerrian?

⁷¹ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*. <https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

⁷² Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

⁷³ Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2012). *En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España*.



Iturria: GETS, *'Encuesta sobre tendencias sociales 2010'*⁷⁴

Bukatzeko, **kausetan** arreta jartzea nahiko nuke, hau da, gizarteak zergatik pentsatzen duen etxegabe bukatu dutela. Kasu honetan, joera dugu **faktore pertsonalei** begiratzeko eta beraz guztia pertsonak egiten dituen akzioengatik azaltzen saiatzen gara. Etxegabetasunaren kasuan, dakigun bezala faktore anitzek parte hartzen dute eta beraz ezin dugu soilik arreta jarri faktore pertsonal / indibidualetan, baizik eta ingurumen faktoreak ere kontuan hartu behar ditugula. Horrek ez du esan nahi faktore pertsonalak alde batera uzti beharko genituela baizik eta faktore pertsonalen eta ingurukoaren arteko elkarreragina izan behar dugula kontuan.

4. BIKTIMIZAZIOA

Aurreko atal batzuetan ikusi dugun bezala, kolektibo honekiko gizarteak duen irudia ez da batera ona eta ezartzen diegun ezaugarriak negatiboak dira. Hori dela eta gizarte berak ezartzen dien estereotipoen eta irudikeria negatiboaren biktimak direla esan genezake. Bestalde, badaude bestelako eremu batzuk non etxegabeak biktimizatuak izaten diren, garrantzitsuena eta argiena giza eskubideen urrapena izango litzateke.

⁷⁴ Sánchez Morales, M^a Rosario H. (2012). *En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España*.

Konturatuko gara beraz, pertsona hauek duten **eskubideak larriki murriztuak** izaten direla eta hainbat **oinarrizko eskubide urratuak** izaten direla egunero. Hauen urrapena modu desberdinetan ikusi ahal dugu. Alde batetik, etxebizitzarako eskubidea izango genuen, etxebizitza bat izateak pertsona guztiek dugun oinarrizko eskubidea da, horrela adierazten baita **Espainiar Konstituzioaren 47.artikulu**an. Artikuluan aipatzen den bezala, ez du edozein etxebizitzari erreferentzia egiten, baizik eta espresuki *‘una vivienda digna y adecuada’*, beraz duintasunaren kontzeptua eta egokitasunaren kontzeptuak agertzen dira.

Duintasunaren kasuan, oinarrizko eskubidea bilakatzen da ere eta badaude gaur egunean delitu batzuk non duintasuna den babesten den ondasun juridikoa, baina etxegabetasun egoeran dauden pertsonen eskubide hau murrizten eta urratzen zaie. Ildo honetatik jarraituz gero, ikusiko genuen **Espainiar Konstituzioaren 18.artikulu**an araututa dagoela, honek hurrengo esaten baitu: *«Se garantiza el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen»*. Sánchez Morales-en (2012) aipatzen den bezala, eskubide hau larriki urratua ikusten da gizarteak pertsona hauekiko duten gorroto eta errefusan, baita ere etxegabeek biktima diren kasuetan.

Beste alde batetik, **osasunerako, enplegurako, tratu-berdintasunerako eta segurtasunerako eskubideak urratzen dira**. Enplegurako eskubidea aldi berean tratu-berdintasunerako eskubidearekin lotuta dago, azkenean etxegabetasun egoeran dauden pertsonak ez dutelako enplegu duin eta egonkor bat lortzeko aukera askorik.

Aipatutakoaz gain, azpimarratzeko da, aurreko ataletan aipatu den bezala, kolektibo hau delitu desberdinen biktima direla, konkretuki, gehien ematen direnak INE (2022)⁷⁵ aipatzen denaren arabera hurrengoak dira:

- 1) Irainak eta mehatxuak, %68,9-an.
- 2) Lapurreak, %65,2-an.
- 3) Erasoak, %39-an.

Aipatutakoaz gain, garrantzitsua iruditzen zait **aporofobiaren** inguruan hitz egitea. Hogar Sí (2022), *‘Aporofobia: la violencia silenciosa que sufren a diario las personas*

⁷⁵ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

en situación de sinhogarismo'- artikuluan⁷⁶ definitzen den bezala, aporofobia pobrezia-egoeran dauden pertsonetik gorrotoa, beldurra eta arbuioa da. Ezinbestekoa da beraz etxegabetasun egoeran dauden pertsonak jasaten dituzten gorroto-delituen inguruan hitz egitea ere, Hogar Sí (2017) aipatzen duen bezala⁷⁷, %47-ak jasan ditu eta %81-a behin baino gehiagotan jasan izan dute gorroto-delitu bat. Ildo honetatik jarraituz, ikusiko genuen, erasoak 18 eta 35 urte bitarteko pertsonak gauzatzen dutela, orokorki festa giroan, gorroto-delitu kasuen %60-a etxegabe dagoen pertsona lo egiten duen lekuan gertatzen dira .

Honi lotuta, aipagarria iruditzen zait %87-ak ez duela salatzen gertatutakoa, hau kausa desberdinengatik izan ahal da, esaterako paperik ez dutelako.

5. IRUDI NEGATIBOAREN ONDORIOAK

Ikusi den bezala, gizarteak kolektibo honi ezartzen dizkion ezaugarrietako asko negatiboak edo konnotazio negatiboa izan ahal dute. Gainera, kontuan izan behar dugu ezartzen zaizkien ezaugarri horietako askok ez direla errealitatearekin bat etortzen, adibiderik argiena droga menpekotasuna da. Gizarte bezala, pentsatzen da etxegabetasun egoera batean dauden pertsonen gehiengoak **droga zein alkoholaren gehiegizko kontsumo** bat dutela, benetan %3,9-ak adierazten dutenean alkohol edo drogen gehiegizko kontsumoa dutela.

Bestalde, osasun mentala eta etxegabetasunaren ideia ere oso finkatuta dago gaur egunean eta beraz pentsatzen da gehiengoak **osasun mentalaren arazoak** dutela eta hori dela eta bukatu dutela egoera horretan. Aldez aurretik azaldutako guztiak beraz ondorioak ditu ere beraiengan eta beraien bere buruarengan duten irudian.

Bukatzeko, **kriminalitatearekin** eta justiziarekin izaten duten harremanari dagokionez ere irudi faltsu bat daukagu beraiekiko, gehiengoak aldez aurretik aztertu dugun bezala, pentsatzen baitute etxegabe dauden pertsonak bestelako gizarte populazioarekin alderatuz delitu gehiago egiten dutela.

Autopertzepzioaren inguruan hitz egiten dugunean, pertsona batek bere buruarekiko duen pentsamenduen inguruan hitz egiten ari gara. Irudi edo pentsamendu

⁷⁶ Hogar Sí, Fundación Rais (2022). *Aporofobia: la violencia silenciosa que sufren a diario las personas en situación de sinhogarismo*. <https://hogarsi.org/aporofobia-violencia-silenciosa-diario-personas-sinhogarismo/>

⁷⁷ Hogar Sí, Fundación Rais (2017). *Contra personas en situación de sinhogarismo*. Hatento, observatorio de delitos de odio <https://hogarsi.org/hatento/>

horietan ez dute parte hartzen soilik hasiera batean guk gure buruarekiko dugun irudia, baizik eta beste pertsonak gurekiko duten pentsamenduak edo irudiaz ere parte hartzen du. Beraz, besteek gurekiko duten irudia negatiboa bada eta ezaugarri zehazt batzuk finkatzen badigute, denborarekin pentsatuko dugu horrela dela eta beraz gu ere besteek ikusten gaituzten bezala ikusiko gara, aurreiritziak, estereotipoak eta irudikeria negatiboa barneratuz.

Azken lerroetan deskribatu dudana, **etiketatzearen teoriak** azaltzen du, non, honen arabera, gizarreak etiketa batzuk jartzen digun eta hainbestetan pentsatzen eta azaltzen den hori horrela dela azken batean betetzen dela, iragarpen autobete bat eratuz.

Beraz ikusi genezake alde zuzenetik aipatutako ideia guztiak **eragin handia** dutela **pertsonen autopertzepzioan eta osasunean**.

2.3 Etxegabetasun-egoerari aurre egiteko politikak eta zerbitzuak

2.3.1 Etxegabetasunaren arazoari aurre egiteko politika publikoak

Aurreko atal batean esan bezala, etxegabetasunaren fenomeno ez da berria, urteen zehar garatzen joan dira politika publiko berri batzuk egoerari aurre egin ahal izateko, hurrengo paragrafoetan beraz azken urteetan eremu honetan garatu diren politika publikoen inguruan hitz egiten ariko gara, **hauen artean Estrategia Vasca para Personas Sin Hogar 2018-2021⁷⁸, Anteproyecto de Ley Estatal por el Derecho a la Vivienda⁷⁹, Ley Integral para la Igualdad de Trato y no Discriminación⁸⁰, Plan**

⁷⁸Eusko Jaurlaritza (2018). *Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021*. Departamento de empleo y políticas sociales.

https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/es_def/adjuntos/ESTRATEGIA-VASCA-PARA-PERSONAS-SIN-HOGAR-2018-2021-castellano.pdf

⁷⁹ Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (2021). *Anteproyecto de Ley por el Derecho a la Vivienda*. Ministerio de derechos sociales y agenda 2030. https://www.mitma.gob.es/recursos_mfom/audienciainfopublica/recursos/01_apl_vivienda_nt_26_octubre.pdf

⁸⁰ Ley 15/2022, de 12 de julio, Ley Integral para la Igualdad de Trato y no Discriminación. *Boletín Oficial del Estado*, 167, de 13 de julio de 2022. <https://www.boe.es/eli/es/l/2022/07/12/15/con>

Estatal de Acceso a la Vivienda 2022-2025⁸¹ eta Estrategia Nacional de Desinstitucionalización⁸², .

Egokia iruditzen zait azken urteetan egin diren estrategia edo planak kronologikoki azaltzen joatea, hori dela eta, lehenik eta behin **Eusko Jaurlaritzako** ‘*Estrategia Vasca Para Personas Sin Hogar 2018-2021*’⁸³ aipatzen diren hainbat ideia azpimarratuko ditugu. Hasteko, estrategia hau 2016.urtean Euskal parlamentuak Euskal Gobernuari proposamen bat egin zion, zeinak etxerik gabeko pertsonen egoera, bere errotik aldatzeko estrategia integral baten sorreraren ingurukoa zen. Analisi hau gaur egungo egoera ulertzeko lagungarria izan ahal da bertan jorratzen diren gai zein ideietatik. Estrategia honetan hainbat kontzeptu edo ideia gako lantzen dira. Horietatik lehena autonomia litzateke. Kontuan izan behar dugu, etxegabetasun egoerak edo gizarte bazterkeria larriko egoera batean dauden pertsonak ez dute autonomiarik, zentroetan egonda beti izango dute joateko orduren bat baina hau ez dute bere kabuz egiten, hau da, beti beste pertsona batzuen mende egongo dira eta hori urteekin kronifikatu egin daiteke. Autonomia garatu ahal izateko, hainbat profesionalak dioten arabera eta baita ere beraiek esaten digutenaren arabera (INE, 2022 etxegabe dauden %82-ak beharrezkotzat jotzen du etxebizitza propioa izatea egoeratik irten ahal izateko)⁸⁴, etxebizitza bat edo beraiena den espazio bat izatea ezinbestekoa bihurtzen da.

Autonomiaren kontzeptuarekin batera, duintasuna jorratzen da. Honek izugarritzko garrantzia dauka, azkenean etxegabeek ere eskubideak dituztelako beste pertsonak

⁸¹Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (2022). *Plan Estatal de Acceso a la Vivienda 2022-2025*

<https://www.mitma.gob.es/vivienda/plan-estatal-de-vivienda/plan-2022-2025/objetivos-a-corto-plazo#pagina-menu-interior>

Real Decreto 42/2022, de 18 de enero, por el que se regula el Bono Alquiler Joven y el Plan Estatal para el acceso a la vivienda 2022-2025. *Boletín Oficial del Estado*, 16, de 19 de enero de 2022.

<https://www.boe.es/eli/es/rd/2022/01/18/42/con>

⁸² Estrategia Estatal de Desinstitucionalización (2023). *Estrategia Estatal de Desinstitucionalización*. Sobre la estrategia.

<https://estrategiadesinstitucionalizacion.gob.es/estrategia/>

⁸³ Eusko Jaurlaritza (2018). *Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021*. Departamento de empleo y políticas sociales.
https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/es_def/adjuntos/ESTRATEGIA-VASCA-PARA-PERSONAS-SIN-HOGAR-2018-2021-castellano.pdf

⁸⁴ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*.
https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

bezala, baina beraienak larriki urratuak izaten dira edo ez dira errespetatzen. Honek ere etxebizitza bat izatea giza eskubide bezala ulertzen du eta aurretik azaldutako teoria edo ideia horiek ere estrategia honetatik eratortzen dira.

Aldez aurretik aipatutako guztia kontuan izanik azpimarratu beharra dago, gaur egunean dauden estrategiak eta laguntzak azken helburutzat dutela etxebizitzaren lorpena, bitartean beste pertsona batzuekin partekatu behar dute guztia eta beraz autonomia poliki-poliki galtzen joaten dira. Hori dela eta, orain dela urte batzuk Estatu Batuetan Housing First deituriko proiektua garatu zen, honen helburua etxegabetasun egoeran dauden pertsonen eta bertako profil jakin bati etxebizitza bat ematea da. Ekimen honek bere printzipio eta ezaugarri propioak ditu, hauek hurrengo atalean jorratuko direnak. Beraz, estrategia honen bitartez bideratzen da egiten diren interbentzioak indibidualagoak izatea eta aldi berean **etxebizitzak** duen papera azpimarratzen da, **autonomia, eskubideak** eta **duintasunaren** oinarri modura.

Beraz, estrategia honek helburu bezala alde batetik etxegabetasunaren egoera azaltzea eta bere osotasunean hartzea izango zen eta beste alde batetik, egoerari aurre egin ahal izateko bideak eraikitzea. Estrategiaren punturik garrantzitsuenak edo helbururik nagusienak hurrengoak dira:

1. Etxebizitzari lehentasuna ematen dioten eta etxebizitzara bideratutako ikuspegiak azaltzea etxerik gabeko pertsonen arazoari heltzeko.
2. Mugaz gaindiko etxeri ezaren fenomenoaz azaltzea.
3. Etxerik gabeko pertsonen arazoaren prebentzioa.
4. Etxerik gabeko gazteen problematika azaltzea.

Esan bezala, guzti honen atzean dagoen helburua egoerari aurre egin ahal izateko bideak eta estrategiak eraikitzea da.

Ondoren, 2021. urteko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak garatutako **Anteproyecto de Ley Estatal por el Derecho a la Vivienda** azalduko dugu. Hasteko, kontuan izan behar dugu aurreproiektu honen bidez Espainiako Hiri Agendak etxebizitzaren arloko neurriak eta politikak sustatzea bilatzen dela, hala nola, etxebizitzaren eremuan, pertsona guztiek izatea etxebizitza duina eta egokia, prezio onean eta honi lotutako bestelako elementu nagusiak bateratzen eta arautzen dituen lege

bat sortzea lortu nahi zen ere. Behin hau argitu ondoren, dituen bestelako helburuak azalduko ditugu, honek helburu askotarikoak baititu, hurrengoak izanik:

1. Nazio eremu osoan aplikagarri diren eta etxebizitzarekin zerikusia duten biztanleriaren eskubide zein betebeharren oinarrizko baldintzak arautzea.
2. Etxebizitza duin eta egokia izateko zailtasunak dituzten biztanleriari laguntzea, hauentzako eskuragarriagoak izan ahal diren prezioak ezarriz.
3. Etxebizitzako osasuna eta duintasuna bermatzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea.
4. Etxebizitzaren arloko Estatuko plangintzaren eta programazioaren funtsezko alderdiak definitzea.
5. Etxebizitza-parke publikoen oinarrizko erregimen juridikoa arautu eta sarbide arazoak dituzten biztanleriari lagundu.
6. Gaur egunean etxebizitza tipologia desberdinak garatu eta gaur egunean dauden bizikidetz- eta bizitoki-modu desberdinetara egokitu egungo familia dinamiketara egokituz.
7. Etxebizitza erosteko eta alokatzeko eragiketetan babesa hobetzea.

Aldez aurretik aipatutakoa bete dezaten, Estatuko Administrazio Orokorraren plangintza- eta programazio-tresnen bitartez etxebizitza-politikak gauzatzeko eskumena duten lurralde-administrazioei lagunduko diete. Honen bitartez ziurtatzen da etxebizitza-eskaintza nahikoa eta egokia dagoela, **Anteproyecto de Ley Estatal por el Derecho a la Vivienda bere Lehenengo Tituluan**, Xedapen Orokorren lehenengo artikulua 3. puntuan adierazten duen bezala.⁸⁵

Jarraitzeko, 2022. urteko **Ley Integral para la Igualdad de Trato y no Discriminación** daukagu. Kontuan izan behar dugu, hau pertsona guztiei zuzendutako legea dela eta beraz ez dela soilik etxegabetasun, zaurgarritasun edo bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat bideratutako legea. Behin hori argitu ostean, lege honen helburua,

⁸⁵Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (2021). *Anteproyecto de Ley por el Derecho a la Vivienda*. Ministerio de derechos sociales y agenda 2030. https://www.mitma.gob.es/recursos_mfom/audienciainfopublica/recursos/01_apl_vivienda_nt_26_octubre.pdf

diskriminazioaren aurkako zuzenbidearen funtsezko definizioak jasotzea da eta honen oinarriko bermeak jasotzea. Honekin batera diskriminazioen biktima diren horiei babesa ematea ere bilatzen da, beraz ezartzen diren bermeen artean hurrengoak izango zire garrantzitsuenak:

1. Prebentzio-neurriak zein diskriminazio-egoerak eteteko neurri egokiak artikulatzea.
2. Baita ere egoera diskriminatzaileak detektatu ahal izateko beharrezko metodo eta tresnak izatea.

2022.urtean ere Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak **Plan Estatal de Vivienda 2022-2025 garatu zuen**, aurrekari bezala Plan Estatal de Vivienda 2018-2021 dauka zeinak helburu bezala 2007an hasitako krisi ekonomiko eta finantzarioari aurre egiteko eta herritarrek etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko dituzten zailtasunei aurre egin ahal izateko laguntzak bideratzea den. Beraz 2022.urteko estrategia hau ildo berdinetik doa baina honek dauzkan helburuak desberdin egiten ditu epeen arabera. Hori dela eta, **epe laburreko eta ertaineko helburuak** izango ditugu.

Hasteko, epe laburrekoetan jarriko dugu arreta. Bost helburu desberdin aipatzen dira, lehenik, **alokairuari bideratutako laguntza zuzenak eskaintzea**, kasu honetan baliabide gutxi edo nahikorik ez duten pertsonen bideratuta. Bigarrenik, **zaugarriak diren pertsonen** (kategoria honen barruan, genero indarkeriaren biktimak, kaleratzea jasan duten pertsonak, etxegabetasun egoeran daudenak eta bestelako zaugarritasun egoerak daude) **etxebizitzarako sarbidea eta gastuetan laguntzak eskaintzea**. Hirugarrenik, **gazteei etxebizitzarako sarbidea erraztea** laguntzen bidez. Laugarrenik, **errentatzaileentzako laguntzak babes-aseguru bidez**, modu honetan alokairuko etxebizitzaren eskaintza sustatu ahal izango da. Eta bukatzeko, **10.000 biztanle baino gutxiagoko biztanleria duten herriko gazteei laguntzea** etxebizitza batera sartzen.

Epe ertaineko helburuei dagokionez, beste bost helburu planteatzen dira. Lehenik, etxebizitza sozialeko eskaintzak handitzea **etxebizitzaren parke publikoari bultzakada bat emanez**. Bigarrenik, **desgaitasuna duten pertsonentzat edota pertsona helduentzako alokairu eskuragarrien kopurua handitzea**. Hirugarrenik,

aldi baterako ostatu zein etxebizitzaren sustapena bultzatu eta modu honetan alokairuko bizitokien eta etxebizitzaren eskaintza handitzea. Laugarrenik, **alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza handitzea** erakunde publiko eta SAREB-en etxebizitzak eskura jartzearen bitartez. Bukatzeko, **alokairu ekuragarriko edo sozialeko etxebizitzaren eskaintza handitzea**.

Aipatutako guztia posible egin ahal izateko, beharrezkoak diren **programa desberdinak erabili eta sortu** dituzte, **guztira 13** programa dira.

Bukatzeko, Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioak garatutako **Estrategia Nacional de Desinstitucionalización** aipatuko dugu. Estrategia honen bitartez zaugarritasun egoeran edota bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzentzen zaien laguntza- eta zaintza-sistemak hobetzea lortu nahi da. Gaur eguneko oraindik ez dago martxan, aurreikusita baitago 2024. urtetik 230 urte bitartean martxan egongo den estrategia izatea.

Honen arabera ere, lortu nahi dena da ematen den arreta zerbitzuen ereduaren aldatzea gizarte eredu batera eta beraz pertsona horiek gizartean bergizarteratu ahal izatea eta eskaintzen zaien arreta hori indibidualagoa izatea, non beraien eskubideak errespetatzen diren. Beste helburuetako bat gaur egungo zentro edo zerbitzuen tipologia aldatzea eta komunitatean eta familia-oinarrian dauden zerbitzuak eta laguntzek indartu. Estrategia hau **pertsona edo kolektibo jakin batzuei bideratua** dago, hauek hurrengoak izanik:

1. Pertsona helduak.
2. Desgaitasuna duten pertsonak.
3. Arrisku edo babesgabezia-egoeran dauden haurrak eta nerabeak eta tutoretzapean egondako gazteak.
4. Etxegabetasun egoeran dauden pertsonak.
5. Instituzionalizatutako bestelako kolektibo batzuk.

Beraz ikusi genezaken bezala, gaur eguneko eta aurreko urteetan hainbat eremuetan garatu dira estrategia desberdinak, modu honetan etxegabetasun egoeran eta bestelako zaugarritasun egoeran zein bazterkeria egoeran dauden pertsonen ematen zaien zerbitzu zein arreta hobeko bat lortu ahal izango da.

2.3.2 Etxegabetasun egoeran dauden pertsonen bideratutako gizarte zerbitzuak eta bestelako laguntzak

Aurreko atalean aipatu diren politika publikoei esker, gaur egunean laguntza esparrua handitzen ari da eta beraz jada arreta handiago bat ematen ari zaie etxegabetasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko zerbitzuei. Hurrengo paragrafoen bitartez, **Donostiako gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten laguntzak** zein bestelako instituzioen bitartez jaso ahal dituzten laguntzak azaltzen ariko gara, hauek bost ataletan zatituz. Lehenik, gaueko harrera zerbitzua, ondoren eguneko zentroak, gero janari banaketa ekimenak, ondoren laguntza ekonomikoak eta bukatzeko bestelako laguntza edo ekimenak.

1. GAUEKO HARRERA ZERBITZUAK

Atal honetan Donostian dauden gaueko harrera zerbitzuak aztertuko ditugu, bakoitzak zein zerbitzu eskaintzen dituen azalduz eta bertan egoteko zein baldintza bete beharko diren zehaztuz. Zerbitzu hauen funtzionamendua eta baldintzak Donostiako Udalaren webgunetik aterako ditugu, baita ere Gaueko aterpearen kasuan beraiek daukaten webgunetik.

Hasteko **harrera sozialerako udal zentroa** (Centro Municipal de Acogida Social gazteleraz) aztertuko dugu⁸⁶, kasu honetan herrian dauden **etxegabeei eta baliabide ekonomiko nahikorik ez** duten pertsonen **zuzentzen zaien** aldi baterako ostalua da. Kontuan izan behar dugu **bestelako zerbitzuak** ere ematen dituztela, hala nola, informazio- eta harrera zerbitzua eta higieze zerbitzua ere eskaintzen dute. Zerbitzu hau **edozeinek erabili** ahal izango du baldin eta identifikazioa erakusten bada eta 18 urte baino zaharragoa bada edo 18 urte baino gutxiago izanez gero hau emantzipatua badago. Gainera **lehen baldintza bezala**, egonaldia gehienez 3 egunekoa izatea da, nahiz eta badauden kasu bereziak non egonaldi hori luzatu ahal izango den. Aipagarria iruditzen zait ere, kasu honetan 3 eguneko egonaldi horren ostean, berriz bertan egon ahal izateko 3 hilabete pasa behar direla.

Aipatutako baldintzaz gain, beste baldintza batzuk ere ezartzen dira, hauek hurrengoak izanik:

⁸⁶ Donostiako Udala (s.f). *Centro Municipal de Acogida Social (CMAS)*. Trámites de servicios. <https://www.donostia.eus/info/udalinfo/tramites.nsf/vTramites/9C839FDA306E078BC125814500390C90?OpenDocument&idioma=cas&id=D580485>

1. Ospitalizazioa eskatzen duen gaixotasun fisiko zein mentalik ez izatea. Bestalde, zentroan dauden pertsonetako baten gaixotasun infekziosoak edo parasitarioak izanez gero osasun zentroak eta zentroko profesionalek esaten dietena jarraituko du, bestela kanporatua izango da.
2. Bere bizitzako zereginak egin ahal izateko hirugarrenengo baten laguntza ez behar izatea ezintasun fisiko edo psikologikoagatik.
3. Alkohol edo beste sustantzien menpe ez aurkeztea zentroan.
4. Zentrorra sartzeko debekua ez izatea jarritako bestelako zigorrenatik.

Gaueko aterpea Donostian kokatzen den beste gaueko harrera zerbitzu bat da⁸⁷, kasu honetan ere **bazterkeria egoeran** dauden eta konkretuki **etxegabetasun egoeran** dauden pertsonen **zuzentzen zaie**. Aterpeak zuzenean ere **bestelako zerbitzuak** ematen dizkiete, hala nola, higiepe pertsonalari lotutakoak, gosaria eta gaua igarotzeko oinarrizko bestelako prestazioak. Edozeinek erabili ditzake zerbitzua baldin eta pertsona hori identifikatzeko dokumentua izaten badu, horretaz gain beste **baldintza** batzuk bete beharko dira, hauek hurrengoak izanik:

1. 18 urte baino zaharragoa izatea eta 18 urte baino gazteagoa izanez gero, emantzipatua egotea.
2. Gizarte Zerbitzuetako profesionalen eskutik alde zuzeneko balorazio eta preskripzio teknikoak izatea.
3. Ospitalizazioa eskatzen duen gaixotasun fisiko zein mentalik ez izatea.
4. Zentroak ezartzen dituen arauak errespetatzea.

Bukatzeko, **egonaldia eta honen mugak** aipatuko ditugu. Kasu honetan 11 hilabetez ematen dute zerbitzua, abuztuan ez baitute irekitzen, baina bertako zerbitzuak izan ahal izateko sarbide tiketa izan behar duzu. Tiket hau lortu ahal izateko, Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzura joan behar zara eta bertan zure egoera zein beste pertsonen egoeraren balorazioa egin ostean eta ikusiz ze puntuazio daukazu emango dizute edo ez. Puntuazio hori pertsona bakoitzaren zaugarritasunaren eta Donostian

⁸⁷Asociación Arrats, recursos sociales y jurídicos (2015). *Gaueko Aterpea*. <https://www.arrats.org/albergue-gaueko/>

daukazun errotzearen arabera izango da. Azpimarratzekoa da ere, egonaldia bertan ezin baduzu egin alde aurretik informatuko zaituztela eta kasu horretan itxarote-zerrendan egongo zarela (hau ere puntuazioaren arabera izango da).

Aipatutako zerbitzuaz gain, beste bi gaueko harrera zerbitzu daude Donostian, hauek biak Caritas-ek gestionatzen ditu⁸⁸. Horietako bat **Aterpe** da, non bertan eskaintzen diren zerbitzuen artean informazio eta orientazio zerbitzua dagoen, baita gizarte- eta hezkuntza-arloko esku hartzeak eta gizarteratze-prozesuetan laguntzea. Horretaz gain ere, elikadura, higiene, garbiketa, erizaintza eta bestelako zerbitzuek ere eskaintzen dizkie.

Bestalde, **Hotzaldi** da beste gaueko harrera zerbitzua, bertan atsedenerako espazio bat eskaintzen zaie eta mantenu, higiene eta garbiketa beharrak ase ahal izateko oinarrizko elementuak ematen dizkiete, guztia esku-hartze sozialeko profesionalak koordinatuta.

2. EGUNEKO ZENTROAK

Etxegabetasun egoeran edo gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen bideratutako eguneko zentro desberdinak topatu ditzakegu, nahiz eta badauden beste eguneko zentro batzuk, baina kasu honetan ez dira etxegabetasun / gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako bideratuta. Beraz atal honetan, **hiru eguneko zentro** aipatuko ditugu, hauek **Hestia, Centro de Día Munto eta Gurutze Gorria - Algara**.

Hestia zentroarekin hasiko gara,⁸⁹ honen bitartez etxegabe egoeran dauden pertsonen hainbat zerbitzu eta aktibitate eskaintzen dizkiete bere egunerokotasunean dituzten oinarrizko beharrak ase ditzaten. Zentroaren **helburu nagusia** beste pertsona batzuekin harreman sozial positiboak eraikitzeko gaitasuna eraikitzea da, nolabait beste pertsonekin harreman sozial positiboak eraikiz gero, euskarri bat izan ahal dute eta horrek eragin ahal du beraien bizitzan aldaketa positiboak gauzatzea eta batez ere hauetara motibatzea. **Lehen**, pertsona hauentzat **elkarleku bat** zen, azkenean bertan egoteko aukera ematen zen eta beste pertsona batzuekin alde aurretik aipatutako

⁸⁸ Caritas (s.f). *Personas Sin hogar* <https://www.caritasgipuzkoa.org/es/que-hacemos/personas-sin-hogar>

⁸⁹Asociación Arrats, recursos sociales y jurídicos (2015). *Servicio Hestia* <https://www.arrats.org/hestia/>

harreman sozialak eraikitze bide bat zen. Bertan, 20 pertsona gehienez egon ahal ziren, baina gaur egunean jada ez da posible bertan geratzea eta soilik egunerokoan oinarrizkoak diren beharrak asetzera joan daitezke. Esaterako, Hestiak ematen dituen zerbitzuen artean dutxatzeko tiketak daude, beraz bertara joanez gero tiketa emango dizute bestelako garbitasun eta higiene pertsonalerako gauzekin batera.

Aipatutako zerbitzuaz gain, beste batzuk ere eskaintzen dituzte, beraien artean hurrengoak:

1. Kirol, aisialdi eta entretenimenduko jarduerak.
2. Beste baliabide batzuei buruzko informazioa eta orientazioa.
3. Bere objektu pertsonalak bertan gorde ahal izatea eta horretaz gain mugikorra kargatu ahal izateko lekua ere izango dute.
4. Otorduak, nahiz eta zentro berak ez eman, bertan prestatzeko aukera izango da.

Esandako guztiaz gain, **baldintza minimo batzuk** ezartzen dituzte bertara joan ahal izateko, hauek hurrengoak izanik:

1. Gizarte bazterkeria egoeran edo arrisku egoeran egotea.
2. 18 urte baino gehiago izatea edo adingabeen kasuan emantzipatuta egotea.

Hasiera batean adingabeek zerbitzuak erabili ahal izateko, udal gizarte zerbitzuek baimena beharrezkoa litzateke eta ulertzen da hau ezohiko egoera bat izango dela. Horretaz gain, ikusi ditugun beste zentroetan ez bezala, printzipioz ez da agiririk aurkeztu behar, eta kontrako kasuan jakinarazi egingo zaie zein den.

Centro de Día para la inclusion social Munto-Bitartearekin jarraituko dugu⁹⁰. Eguneko zentro honen helburu nagusia, egoera kroniko batean eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumezko zein gizonezkoei laguntza ematea da, dauden egoeratik ateratzen laguntzeko. Kontuan hartu behar dugu, zentro honek hainbat zerbitzu eskaintzen dituela eta beraz sekzio desberdinetan antolatuta dago.

⁹⁰ Fundación Social Emaús (2016). *Munto*
<https://www.emaus.com/pdf/2016/munto.pdf>

Alde batetik, **Munto egoitza zerbitzua** dago, honen bitartez bertan dauden pertsonen autonomia, bizi-baldintzak hobetzea eta testuinguru sozial desberdinetara egokitzen laguntzea, dauzkaten gaitasunak eta trebetasunak indartzea eta integratzeko eta bizitza sozial, laboral eta kulturalean parte hartzeko aukera eskaintzea.

Aldi berean, zerbitzu honek bi azpi zerbitzu ematen ditu, alde batetik egonaldi luzeko eta intentsitate ertaineko egoitza eta bestetik egonaldi ertaineko eta intentsitate ertaineko egoitza.

Bukatzeko, bigarren zerbitzu bat ematen dute, **Munto eguneko zentroa**. Honen bitartez ere, alde aurretik aipatutako eremuetako laguntzak eskaintzen dira (autonomia pertsonala izatea, bizi baldintzak hobetzea...). Kasu honetan aldatzen dena da, pertsona hauek ohiko bizitokia dutela, kasu honetan 21 pertsonentzako plazak daude eta pertsonen gizarteratzera bideratzen ditu laguntzak.

Gurutze Gorriak eskaintzen duen Algara eguneko zentroaren zerbitzuari dagokionez,⁹¹ topaleku bezala funtzionatzen duela esan genezake, bertan pertsonak biltzen baitira beraien arteko harremana sozialak gauzatu ahal izateko eta bakoitzaren giza garapena sustatzeko helburua dauka.

Nahiz eta konkretuki Algara eguneko zentroak ematen ez dituen zerbitzuak izan, Gurutze Gorriaren eskutik bestelako zerbitzu hauek topatu genezake:

1. Garbitasun eta higiene pertsonalerako kit-ak
2. Dutxa tiketak.
3. Gosariak.

Aipatutako zerbitzuaz gain, 2021.urtean Naiz aldizkarian⁹² argitaratu zuten Egian beste eguneko zentro bat egin behar dela, konkretuki Villa Salia erreformatuko dutela aipatzen da. Ekimen hau jasotako kexak direla eta gauzatu zen, azken batean egungo pertsona kopuruari aurre egin ahal izateko eta pertsona gehiagori atentzioa emateko

⁹¹ Cruz Roja (s.f). *Centro de Día Algara*. Inmigrantes y Refugiados

<https://www.cruzroja.es/principal/web/provincial-gipuzkoa/inmigrantes-y-refugiados>

⁹² Naiz Aldizkaria (2022). *Donostia abrirá un centro de día para personas sin hogar en Villa Salia, en Egia*.

<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210119/donostia-abrira-un-centro-de-dia-para-personas-sin-hogar-en-villa-salia>

horrelako laguntzen falta susmatzen baitzuten. Eraikin horretan, familientzako programa bat ere sortuko dela diote.

Bukatzeko, **Aterpe zentroa** ere badago, kasu honetan lehen esan bezala Caritas-ek gestionatzen duen zentro bat da eta egunez zein gauez eskaintzen dituzenez zerbitzuak, hauek alde aurretik aipatutako berdinak dira, hau da, informazio eta orientazio zerbitzua dagoen, baita gizarte- eta hezkuntza-arloko esku hartzeak eta gizarteratze-prozesuetan laguntzea. Horretaz gain ere, elikadura, higiene, garbiketa, erizaintza eta bestelako zerbitzuek ere eskaintzen dizkie.

3. JANARI BANAKETA EKIMENAK

Bi ekimenen inguruan hitz egingo dugu, Otorduak programa alde batetik eta bestetik Remar.

Otorduak programa 2020.urtean garatzen hasi zen ekimen bat da, eta 2021eko uztailan jada martxan jarri zen. El Diario Vasco-k (2022) argitaratu zuen *‘El programa Otorduak ofrece comidas y cenas a personas sin hogar’* artikuluan aipatzen den bezala, guzti hau Donostiako Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak (SMUS) pandemia garaian hainbat pertsonen egoera ikusi ostean planteatu zen. Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzura joaten ziren pertsona askoren kasuan, hauek ikusi zuten gose handiarekin agertzen zirela eta pandemia garaia zela eta dena itxita zegoen eta elikagaiak lortzeko zailtasun handiagoak zeuzkaten.

Ekimen honen bitartez **Donostiako udalaren eta hiriko taberna eta jatetxe** desberdinen **arteko loturaren** bitartez lortu nahi dena da Donostian geratzeko erabakia hartzen duten etxegabe pertsonen egunean behin janari bero bat izatea. Hori bete ahal izateko esan bezala hiriko taberna eta jatetxe desberdinek parte hartzen dute ekimen honetan eta beste edozein pertsona bezala joaten diren bertara jatera eta ondoren gaberako tupper bat edo ogitarteko bat ematen diete.

Hau posible izan ahal izateko, **baldintza** batzuk eskatzen dira, hauek hurrengoak dira Donostiako Udalak *‘El programa Otorduak II contará con un presupuesto de 285.120 euros en 2023’* argitaratutako artikulua araberaren arabera⁹³:

⁹³ Donostiako Udala (2022). *El programa Otorduak II contará con un presupuesto de 285.120 euros en 2023*. Noticias. <https://www.donostia.eus/home.nsf/0/E1B309939738DBA0C12589170042AA44?OpenDocument&idioma=cas>

1. Hirian errotzeko borondatea aurkeztu behar da.
2. Elikadura-mantenerako inolako laguntzarik ez jasotzea, ez ekonomikoa ez bestelakoak.
3. Jendearentzat irekita dagoen lokal batean jateko behar diren gizarte-trebetasunak izatea.

Horretaz gain, taberna zein jatetxean aurkeztu behar izango dute aldez aurretik jasotzen duten identifikazio txartel bat, hau sei hilabeteko balioa izango du.

Bestalde **Remar** daukagu⁹⁴, kasu honetan ONG-ak egiten dituen ekimenen bidez zaurgarritasun egoeran dauden familia askori laguntzen zaie, hala nola, muturreko pobrezia-egoeran daudenei, inmigratio egoera, langabezian eta bestelako egoeretan daudenei. Remar-eko taldeak urteen zehar hainbat eremuetan proiektu eta programa desberdinak garatu dituzte aldez aurretik deskribatutako egoeran dauden pertsonen lagundu ahal izateko. Aipatutako programa eta proiektuak hainbat herrialdetan garatu dira, bost kontinente desberdinetan hain zuzen ere, egindako ekimenak eta proiektuak ez dira soilik elikagaien eremukoak, baizik eta hezkuntza, genero-inklusioan eta bestelakoak.

4. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Gaur egunerarte etxegabe egoeran zeuden pertsonen ez zuten aukerarik **Bizitzeko guxtiengo diru-sarrera laguntza**⁹⁵ jasotzeko baina egin diren azken aldaketen ondorioz, **abenduren 20ko, 19/2021 Errege Lege Dekretuaren**⁹⁶ bidez sarrera ahalbidetzen zaie. Hartutako neurrien artean orain arteko bizikidetz-unitateei ematen zieten definizioa aldatu dute bizilekua edo etxebizitza partekatzen den kasuetan. Honekin batera erregistratutako egoitza zentro ez-iraunkorretan (hala nola, aterpetxeak)

⁹⁴Remar (2021). *Remar San Sebastián dando ayuda a decenas de familias en tiempos de crisis*. <https://remar.org/remar-san-sebastian-dando-ayuda-a-decenas-de-familias-en-tiempos-de-crisis/>

Remar (s.f). *¿Qué es REMAR?* <https://remar.org/que-es-remar/>

⁹⁵Ministerio de Inclusión, Seguridad Social e Inmigraciones (s.f). *Ingreso Mínimo Vital* <https://www.inclusion.gob.es/eu/web/inclusion/ingreso-minimo-vital/que-es>

⁹⁶Ley 19/2021, de 20 de diciembre, por la que se establece el ingreso mínimo vital. *Boletín Oficial del Estado*, 304, de 21 de diciembre de 2021. <https://www.boe.es/eli/es/l/2021/12/20/19/con>

bizitzen diren pertsoneri erraztu egin zaie laguntza honen sarbidea ere. Laguntza honen bitartez, bakarrik bizi diren edo bizikidetz-unitate baten integratuta dauden oinarrizko beharrak betetzeko baliabide ekonomiko nahirik ez duten pertsonen gizarte-bazterketa eta pobrezia arrisku egoera prebenitzea bilatzen da.

Hogar Sí-k⁹⁷ bere aldetik etxegabetasun egoeran dauden pertsoneri lagundu ahal izateko ekimen bat jarri du martxan 2021.urtean, hau **‘Fondo NEXiT’** deiturikoa. Honen bitartez, laguntza ekonomiko bat eman nahi zaio etxegabetasun egoera batean zegoen pertsona bateri eta kasu honetan aurrera irten izan denari. Modu honetan bere autonomia gehiago garatzeko eta beraz pisu bat alokatzeko aukera izateko, oinarrizko beharrak ase ahal izateko laguntza ematea da ekimen honen ideia. Hau posible izateko, egoera honetan dauden pertsoneri zuzenean diru transferentzia bat egitea proposatzen da lehenengo aldiz Espainian, nahiz eta Kanadan jada martxan jarri zuten eta emaitza onak izan zituzten

5. BESTELAKO LAGUNTZAK EDO EKIMENAK

a. LAMORUS - CARITAS

Caritas-ek gestionatzen duen beste zerbitzuetako bat da⁹⁸, kasu honetan hezkuntza eta lanerako prestakuntza tailerra eskaintzen diete etxegabetasun egoeran dauden pertsoneri edota gizarte-bazterkeria egoeran daudenei.

Behin hau argituta, honen bitartez duten helburu nagusia autonomia pertsonala eta giza garapena sustatzea da. Hau posible egin ahal izateko pertsonen autoestimua sustatzen dute eta beraien trebetasun sozialak garatzen laguntzen dute. Horretaz gain lan-ohiturak irakasten dizkiete, hauek lortu ahal izateko egunero ‘lan bat bidaltzen zaie’, modu honetan egunero egiten dute lana eta norberaren erantzukizuna lantzen dute ere eta motibatze laguntzen diete ere.

b. HOUSING FIRST EKIMENA

Orain arte, bestelako atal batzuetan etxebizitzaren eta honek dakarren autonomiaren inguruan hitz egiten aritu gara, zehazki atal honetan bi kontzeptu horiekin lan egiten

⁹⁷ Hogar Sí, Fundación Rais (2017). *Fondo NEXiT, transferencias directas*
<https://hogarsi.org/empresas/nexit/>

⁹⁸ Caritas Gipuzkoa (s.f). Lamorus. *Ekonomia Solidaria*
<https://www.caritaspuzkoa.org/eu/zer-egiten-dugu/ekonomia-solidarioa>

duten laguntzak / interbentzioetan arreta jarriko dugu. Autonomia bultzatzen duten proiektuetariko bat Housing First deiturikoa da, hau etxegabeei laguntzeko ekimen bezala sortu zen 90. hamarkadan, Estatu Batuetan konkretuki. Gaur egunean aplikatu izan da Estatu Batuetako hainbat herrialdetan, Kanadan eta Europako bestelako lekuetan eta denborarekin herrialdeek egokitzapenak egin zituzten jatorriko ereduarekin alderatuz baina beti Housing First-en jatorrizko ereduaren funtsa mantenduz.

Hobeto ulertu ahal izateko zertan desberdintzen den beste ekimen batzuetatik, beste laguntza edo ekimenekin alderatu beharko dugu. Beraz analisiarekin hasten bagara, konturatuko gara bestelako ekimen zein laguntzak azken lorpen bezala etxebizitza dutela eta beraz, etxegabe dauden pertsonak poliki-poliki edo pausuz-pausu lortzen joaten dira oinarrizkoak diren gauzak. Hau da, etxegabe egotetik eta kalean lo egitetik ostatu batera lo egitera pasatzen dira, ondoren aldi baterako ostatura joaten dira eta bukatzeko etxebizitza bat izango dute. Guzti honetan erakundeek kontuan hartzen dute laguntza horiek emateko edo zer nolako jarrera izan duten denboran zehar, beraien jarrera positiboa bada edo modu egokian jokatzen badute gorago dauden laguntzak emango zaizkie, aldiz txarra bada ez dute aurrera egingo beraien gizarteratze prozesu horretan edota ordura arte izandako lorpenak kenduko zaizkie.

Panadero Herrero, S., Fernandez, J.M., Martinez-Cantos, J.L., et. al (2017)⁹⁹ txostenaren arabera, etxegabeei etxebizitza bat ematea da hasieratik eta beraz beraien izatea poliki-poliki beraien bizitzen jabeak eta berregin dezaten beraien bizitza. Nahiz eta bestelako elementuak dauden desberdintzeko beste ekimenengatik, aipatutakoa da elementu eta desberdintasun nagusia. Garrantzitsua da ere jakitea ekimen honek zer nolako baldintzak ezartzen dituen, oinarrizko printzipioak zeintzuk diren eta zer behar den ekimena egin ahal izateko. **Oinarrizkoak diren printzipioei** dagokionez, 8 printzipio gidari dituztela esango dugu hauek hurrengoak izanik AIRES (2023)-ren¹⁰⁰ arabera:

1. Etxebizitza oinarrizko giza eskubidea da.
2. Errespetua, hurbiltasuna eta errukia pertsona guztiekiko
3. Pertsonetikiko konpromisoa

⁹⁹ Panadero Herrero, S., Fernandez, J.M., Martinez-Cantos, J.L., et. al (2017). *Evaluación de la metodología Housing First en España*. https://solucionesalsinhogarismo.org/wp-content/uploads/2022/12/Housing_first_Informe_completo.pdf

¹⁰⁰ AIRES, Asociación para la inclusión residencial y social (2023). *Conoce el modelo de atención de Housing First*. <https://airesasociacion.org/housing-first/>

4. Etxebizitza sakabanatua
5. Etxebizitzaren eta arreta-zerbitzuen arteko bereizketa
6. Pertsonen aukeratzeko eta autodeterminatzeko gaitasuna
7. Errekuperaziorako orientazioa
8. Kaltea murriztea

Beraz esan bezala, printzipio hauek errespetatuz eta nolabaiteko moldaketak eginez komunitate bakoitzak edo herrialde bakoitzak moldatu du bere lurraldean aplikatu ahal izateko eta ekimena aurrera eramateko. Dakigunez, Europako herrialde desberdinetan inplementatu da urteen zehar baina horietako batzuetan gaur egunean ez dago martxan, esaterako, Donostian hasi ziren ekimen hau lantzen eta beraz Donostiako zonalde batzuetan badaude etxegabe egoeran zeuden pertsonentzako etxebizitza propioak. Esan bezala, Donostian erabaki zen ekimena gehiago ez zabaltzea eta soilik hasieran egin ziren etxeak eraiki ziren helburu horrekin, gehiago ez zabaltzearen zergatia merkatu inmobiliarioaren egoera izan zen, egoera txarra zegoen eta beraz erabaki zuten beste eremu edo helburu batzuetarako eraikitzea.

Baldintzei dagokionez, azpimarratzekoa da ekimen honetan ez dela beharrezkotzat jotzen edo ez dutela baldintza bat bezala hartzen, pertsonak parte hartzea tratamendu programetan errehabilitatzeko. Behin ideia azpimarratu ondoren, eskatzen diren baldintzak hurrengoak dira arabera Panadero Herrero, S., Fernandez, J.M., Martinez-Cantos, J.L., et. al (2017)¹⁰¹:

1. Gorputz teknikoaren bisita bat onartzea astero.
2. Etxebizitzaren errentarako beraien soldataren / sarreraren %30 jartzea.
3. Komunitatearen arauak errespetatuko direla hitz ematea.

Honekin batera, **ekimena posible izateko beharrezkoak diren elementuak** azaldu nahiko nituzke. Beraz, ekimena aurrera eraman ahal izateko, kasu honetan bi gauza beharko genituzke, alde batetik etxebizitza sozial hauek sortzea eta bestetik etxegabetasun egoeran dauden pertsonen lagundu eta jarraipen bat egiteko talde tekniko

¹⁰¹Panadero Herrero, S., Fernandez, J.M., Martinez-Cantos, J.L., et. al (2017). *Evaluación de la metodología Housing First en España*. https://solucionesalshogarismo.org/wp-content/uploads/2022/12/Housing_first_Informe_completo.pdf

bat. Pixka bat sakonduko dugu beraz bi ideia hauetan. Hasteko **etxebizitzan jarriko dugu arreta**, honek hainbat ezaugarri izango ditu, hauek hurrengoak izanik:

1. **Unipertsonala izatea.** Etxebizitza sozial hauetan bilatzen dena da pertsona bakarrak bertan bizitzea, honen bitartez alde aurretik zenbaitetan aipatutako autonomia hori garatu ahal izateko.

2. **Sakabanatuta egotea.** Kasu honetan, helburu nagusia autonomia garatzeaz gain, etxegabe dagoen pertsona birgizarteratzea izango zen eta beraz laguntzea nolabait harreman sozialak garatzen.

3. **Denboran egonkorra izatea.**

Talde teknikoari dagokionez, baita ezaugarri bereziak ditu eta hauek hurrengoak dira:

1. **Formakuntza berezia izan behar dute.** Kontuan izan behar dugu beraz, talde tekniko honen barruan bi talde txikiagotan bereizten direla, alde batetik ACT (Tratamientoasertivo comunitario) eta ICM (Gestión Intensiva de Casos).

a. ACT taldea osatzen duten profesionalak askotarikoak dira, beraien artean psikiatra, gizarte-langileak, etxebizitzako espezialistak, adikzioetan espezialistak, erizaina... aurkitzen dira. Bere funtzio nagusia, zuzenean zerbitzuak hornitzea da.

b. ICM taldea osatzen dutenak aldiz kasuen koordinatzailea zein kudeatzaileak osatzen dituzte, hauek ere adikzioetan espezialistak, erizainak, gizarte-langileak izan ahal dira, baina hauen funtzioa baliabide komunitarioak kudeatzea eta koordinatzea da hain zuzen ere.

2. **Urteko edozein egun eta orduetan daude.** Hau da, gertatu ahal den edozein emergentzien aurrean beti egongo da taldeko norbait laguntza emateko eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan.

Aipatutako guztiaz gain, esan beharra dago, gaur egunean esan bezala, herrialde desberdinek aldatetak egin dutela eredu honekiko, horregatik aldaera desberdinak sortu

dira, hala nola **Housing Led** (kasu honetan ematen den dinamika desberdina da eta beraz eskaintzen diren etxebizitzak ez dira unipertsonalak baizik eta etxebizitza partekatuak izango dira) eta **Habitat**.

3. ATAL ENPIRIKOA

Atal hau lau azpi atalez osatuta egongo da, alde batetik (1) **helburuaren** azalpena izango dugu, bestetik (2) Donostiako Koldo Mitxelenaren egoerari **hurbilpen** bat egingo dugu eta **zergatik aukeratu** den honen inguruan egitea azalduko da, ondoren (3) marko enpirikoan datuak lortzeko erabili den **metodologia** azalduko dugu eta bukatzeko (4) **emaitzen analisisa** egingo da.

3.1 Helburua

Hasteko beraz, **helburuak finkatuko** ditugu. Lan honen bitartez gizarte fenomeno bati hurbilketa bat egitea bilatzen da, jakitea gaur egunean zein den Donostian eta konkretuki Koldo Mitxelena eta bere ingurunearen egoera. Beraz alde batetik, arazoari hurbilketa bat egitea bilatzen da, bestetik fenomeno honen gizarte pertzeptzioa zein den jakitea.

3.2 Zergatik aukeratu da Koldo Mitxelena

Aipagarria iruditzen zait azaltzea ere zergatik zentratu den lana Koldo Mitxelenan zehazki. Hori dela eta esatea **konkretuki Koldo Mitxelenaren** egoera zehatza aztertzea erabaki dela, **Donostiako erdigunean kokatzen** den liburutegi bat delako eta beraz jendearentzako ezaguna den eraikin bat da. Gainera, lan honekin elkartzen duena zehazki eraikin honen ondoan kokatzen den **Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua** (Servicio Municipal de Urgencias Sociales erderaz) da, horrek eragiten du etxegabetasun egoera batean edo bazterkeria-sozialeko egoera baten dauden pertsonak bertatik igarotzea maizago. Gainera kontuan izan behar dugu, **eraikin publikoa** dela eta beraz sartu nahi den pertsona oro sartzeko eskubidea eta ahalmena dauka. Hori dela eta batzuk bertara joaten dira eguna igarotzera eta klimatik babestu ahal dira bertan.

Bukatzeko, ondoan komertzioak daudela ere puntu garrantzitsu bat bihurtzen da lanaren helburuak direla, modu honetan ondoko komertzioak **zer nolako pertzeptzio** duten ikusi ahal izango dugu, baita ere zentro bereko langileak eta kontsumitzailearena ere. Esandako guztiarengatik interesgarria iruditzen zitzaidan egoera zehatza aztertzea.

3.3 Metodologia eta izandako arazoak

Metodologiari dagokionez, datuak bildu ahal izateko hainbat **elkarrizketa** egin dira zeinan komertzioak, zentro bereko langileak eta Koldo Mitxelenako kontsumitzaileak parte hartu duten eta etxegabetasunaren fenomenoarekiko eta konkretuki Koldo Mitxelenari lotutako esperientzia eta pertzeptzioa azaldu diguten. Datuak jasotzeko erabili diren elkarrizketa horiek **erdi egituratuak** izan dira, bestelako galderak planteatuz momentuan bertan. Posible izan den guztietan aurrez-aurreko elkarrizketak izan dira, baina badaude kasuak non ezinezkoa izan den aurrez-aurreko egitea eta beraz beste bide batzuen bitartez egin da, hala nola, telefonoz edo gmailez.

Elkarrizketak egiterakoan eta beraz datu bilketa egiterakoan izan diren arazoei dagokionez, esatera batzuetan ez dela erraza izan elkarrizketa aurrera eramatea, batzuk ez baitzuten parte hartu nahi edo ez baitzuten pertzibitzen bertan etxegabetasun egoeran dauden pertsonekin arazoak zeudenik. Beste batzuetan parte hartzea erabakitzen zuten baina ondoren arazoak planteatu izan dira galderak erantzuterakoan.

Lana aurrera eraman ahal izateko eta datu bilketa posible egina ahal izateko, ez dira soilik elkarrizketak egin, baizik eta behaketa bat ere egin dela, eta fitxa tekniko bat ere. Garrantzitsua da azpimarratzea, lanaren izaeragatik eta honek duen helburuarengatik datuak lortu ahal izateko eta ahalik eta hoberen egiteko hauen bilketa hurrengo lanak edo pausuak jarraitu direla:

- 1) **Behaketa** egin, ikusiz zein den lana kokatu behar dugun testuingurua eta behaketatik lortutako informazioa bildu **behaketa fitxa** baten bidez, zeina hainbat item erabiltzen diren.
- 2) Testuingurua eta egoera ikusi ondoren egoerara hurbiltzen gaituzten **galderak prestatu** eta komertzio zein **elkarrizketatu behar diren** bestelako **pertsonekin harremanetan** jarri.
- 3) Elkarrizketak egin eta honen datuak bildu **fitxa tekniko** baten bidez (fitxa tekniko honetan subjektua eta honi loturiko informazioa, data, tokia, kontaktua egiteko modua eta bestelako komentarioak zehazten dira), non elkarrizketatuen datuak agertzen diren.

Lortutako informazio guztiarekin **kronograma** bat egin da, non egindako pausuak sakonago azaltzen diren, hori dela eta, hurrengo paragrafoetan honi buruz hitz egiten arituko gara.

3.3.1 Behaketa fitxa

Aldez aurretik esan bezala, lana bideratuta dagoen eremua aztertzeko beharrezkoa da behaketa fitxa hau, hurrengo parrafoetan beraz **egun eta ordu desberdinetan jasotako datuak** islatuko dira **item** desberdinen arabera, hauek **hurrengoak** izanik: pertsona kopurua, adina, nazionalitatea, generoa, beraien jarrera eta jendeak zer nolako jarrera duen beraiekiko. Baita ere poliziaren jarduera / presentzia, arazoak egon diren edo ez, zenbat denboraz egoten diren Koldo Mitxelenan eta zer erabilpen ematen dioten instalazioei.

Kontuan izan behar dugu behaketa egin ahal izateko eta ahalik eta datu zehatzenak eta zabalagoak lortu ahal izateko, hainbat egunetan hartu izan direla. Honek esan nahi du ere eguneko ordu desberdinetan egin direla, asteko egun desberdinetan eta klima desberdinarekin ere, horrela aldaketarik zegoen eta zeintzuk ziren ikusi ahal izan dira.

1. PERTSONA KOPURUA

Eguneko orduaren eta eguraldiaren arabera desberdintasuna nabaritzen zen, baita ere kokatzen ziren lekuan ere, hau da, Koldo Mitxelena barruan edo kanpoaldean zeuden pertsona kopurua desberdina zen klimaren arabera.

Instalazio barruan zein kanpoan kokatzen diren pertsona kopuruari dagokionez, esan genezake 20 pertsona inguru ikusi direla. Kontuan izan behar dugu, zentroaren barruan edo kanpoan kokatzeak klimaren eta bestelako faktore batzuen arabera zela. Beraz eguraldi ona egiten duenean pertsona gehiago daude Koldo Mitxelenaren kanpoan barruan baino eta alderantziz. Aipatutakoarengatik, dagoen pertsona kopurua ere aldatu ahal da eta beraz eguraldi txarra egin duen egunetan bai nabaritzen ziren pertsona gehiago bertatik. Horretaz gain, askok barruan pasatzen zuten orduak eta orduak, ondoren azalduko den bezala, internetaren erabilera dela eta izan ahal da.

2. ADINA

Orokorrean gazteak dira, kontuan izan behar dugu adin ertaineko pertsonak ere ikusi direla baina oso kopuru txikian. Beraz esan genezake Koldo Mitxelenara

bertaratzen diren etxegabetasun egoeran dauden pertsonen adina 20-25 urte ingurukoa dela eta beraz instalazioak erabiltzen dituzten pertsonak gazteak direla gehienak.

Gutxi gora-behera 20-30 urte bitarteko jendea dago bertan, bestalde badaude pertsona pare batzuk (5 pertsona inguru) zaharragoak zirenak eta beraz 50 urte inguru izango zutenak. Horretaz gain beste 2 pertsona zaharrak ziren (60 urte edo gehiago), baina hauek behaketa egindako egun batean soilik ikusi ziren eta beraz agian ez dira bertatik maiz egoten.

Azpitarratu nahiko nuke, ikusi dugunarengatik, nazionalitatea adinarekin izan ahal duela nolabaiteko harremana. Kasu honetan, ikusi da atzerritarrak diren horiek orokorrean gazteagoak direla bertakoak baino, eta beraz aldeztatik aipatutako adinertaineko / zaharreko 7 pertsona horietako lau espainiarrak zirela.

3. NAZIONALITATEA

Ia bere osotasunean atzerritarrak dira, bertakoak direnak gutxiengoak izanik eta beraz aipatutako 20 pertsonetatik 4 edo 5 soilik dira bertakoak. Bestalde aipatzekoa da, bertakoen kasuan gehienak bakarrik zeudela eta ez zirela beste pertsona batzuekin elkar joaten, aldiz atzerritarrak zirenak taldean zeuden (4-5 bat pertsona) edo binaka.

4. GENEROA

Nahiz eta egun, ordu eta eguraldi desberdinetan aztertu den zonaldea, soilik emakue bat ikusi da bertatik, beraz gehienak gizonezkoak zirela esan dezakegu.

5. ZER EGITEN DUTE

Kasu honetan ere Koldo Mitxelenaren barruan edo kanpoan egonda jarrera desberdinak izaten dute, barruan dauden horiek mugikorra kargatzen daude edo mugikorrarekin zerbait egiten eta entzuten edo deskantsatzen. Hauek orokorrean binaka / hirunaka edo banaka egoten dira eta behaketa egin den egunetan ez dute iskanbilarik sortu.

Aldiz, kanpoaldean daudenak noizean behin builaka hasten dira, talde handiagotian daude eta beraien artean hitz egiten dute. Batzuetan hirugarren pertsona bat etortzen da eta zerbait ematen die ezkutuan eta gero joan egiten da. Hauek orokorrean Koldo Mitxelenako ate batean edo bankutan jazarrita egoten dira.

a. BUELTATZEN DIRA?

Batez ere aurreko parrafoan aipaturiko hirugarren pertsona horiek bai bueltatzen dira. Besteak orokorrean bertatik egoten dira egunean zehar, agian batzuetan buelta bat ematera joaten dira eta 5 minutura bertan daude berriro.

6. ARAZOAK SORTZEN DIREN EDO EZ

Hasteko desberdindu egingo dugu zentro barruan gertatu ahal diren arazoak eta kanpoan gertatu ahal direnak. Kanpokoekin hasteko, esan beharra dago nahiz eta komertzio eta langileekin hitz egin ostean aipatzen diguten maiz gertatzen direla arazoak edo egoten direla iskanbilak, behaketa egin den egunetan ez dela arazo larririk ez iskanbila handirik egon. Aipagarriena egun batean oihuka hasi zirela baina bestelako iskanbila edo buila sortu gabe (ez dakit oso ondo zergatik baina justuki bertatik polizia pasatu ostean gertatu zen) eta behaketa beste egun batean polizia bertatik igarotzen zenean bi gazte gelditu zituela eta miatu egin zituztela.

Zentro barruan ikusitakoaren arabera, behaketa egunetan ez zen ezer gertatu eta ez zen inongo arazorik egon, baina kontsumitzaile zein bertako langileak ere esaten dute nahiko iskanbila eta arazo izaten dituztela (lapurretak, mozkortutako jendea...) eta batzuetan poliziari deitu behar izan dietela.

7. POLIZIAREN PRESENTZIA

Egunean bi edo hiru aldiz pasatzen dira bertatik, autoaren barruan mantentzen dira baina oso abiadura txikian joaten dira, batez ere etxegabe dauden pertsonak dauden banku edo lekuarengatik igarotzen direnean.

Egun batean, hauek pasatzen zebiltzanean pertsona batzuk builaka hasi ziren, baina bestelako garrantzirik gabe. Beste egun batean, polizia bertatik igaro zen eta bi pertsoneri (kasu honetan biak ziren gazteak, atzerritarrak eta gizonak) geratu zieten eta miatu egin zituzten ikusteko zerbait zeukaten edo ez. Horrez gain paper batzuk erakutsi zizkieten eta azkenean joan egin ziren, baina ia horietako bat eraman zuten autoan. Nahiz eta egun horretan denbora bat egon ziren Koldo Mitxelena ondoan, eta bertatik irten zen beste mutil gazte bati geratu zioten, orokorrean ez dira denbora askoz bertan geratzen. Horrez gain, polizia patruila hori joatean beste bat etorri zen eta ondoren

Ertzaintza. Denbora gutxira berriz pasa ziren ikusteko dena ondo zegoen eta gero ez ziren gehiago pasa.

Aste santuen ostean maizago pasatzen ziren eta erregistroak gauzatu zituzten Koldo Mitxelenatik irten ziren bi gizonaek. Paper batzuk eskatuz eta baita beste gauza batzuen bila zebiltzan.

8. HERRITARREK ZELA JOKATZEN DU?

Orokorrean pertsonen joera beraiek zeuden leku horietatik ez igarotzea zen, nahiz eta berez bide hori hartuta buelta txikiago bat ematen zuten. Beraz jendeak nahiago zuen buelta handiago bat ematea eta leku horretatik ez igarotzea buelta txikiagoa egitea eta bertatik igarotzea baino.

Aurreko parrafoan esan dudana orokorki bankuetan eserita zeudenean gertatzen zen, baina egia da Koldo Mitxelenako ateetako batean zeudenean, jende ia gehiena ez zela ate horretatik pasatzen eta nahiz eta beste bietan jende gehiago egon, nahiago zuten besteetatik joatea.

Hainbatetan ikusi dudana beste jarrera bat izan da, bertatik igaro ostean atzera begiratzea eta ondoren beraien artean zerbait komentatzea.

9. ZENBAT DENBORAZ

Egunaren zati garrantzitsu bat edo egun osoa igarotzen dute bertan, elkarrizketak egin ostean batzuk adierazi dute *'irekitzen denetik ixten den arte'*.

10. ZER ERABILPEN EMATEN DIETE INSTALAZIOEI

Instalazioak orokorrean mugikorra kargatu ahal izateko erabiltzen dute, internetaren konexioaz ere baliatzen dira deiak egin ahal izateko, bideoak ikusi ahal izateko edo mugikorrean bestelako gauzak egin ahal izateko. Beraz alde batetik teknologiaren erabilpena egiten dute eta beste alde batetik, batez ere komunak erabiltzen dute beraien higienerako.

Aipatutakoaz gain, pertsonak ere deskantsatzera joaten dira, bertan baiden besaulki batzuetan jazarrita.

3.3.2 Fitxa teknikoa

Aldez aurretik aipatu den bezala, fitxa teknikoaren bidez **elkarrizketatuak izan diren pertsonak** eta hauen inguruko informazioa aurkitzen dugu. Esan bezala, bertan hainbat informazio agertzen da, hala nola: adina, generoa, kontaktatzeko bidea eta beraz zela lortu diren datuak (aurrez-aurreko elkarrizketa izan bada, dei bidezkoa...) eta bestelako mezuak (esaterako, arazoak izan badira informazioa lortzerakoan eta zergatik).

SUBJEKTU TIPOA	GENEROA	ADINA	NON NOIZ	/ KONTAKTU MODUA	BESTELAKOAK
1go komertzioa	Emakumea	Gaztea (25 urte)	Bere komertzioan 03/04/2023	Aurrez aurrekoa	
2. komertzioa	Gizona	Adin ertaina (56 urte)	Bere komertzioan 03/04/2023	Aurrez aurrekoa	Ez zuen galderei zehatz mehatz erantzun, berak ez baitzuen kontsideratzen pertsona etxegabeak 'lanik bilatzen ez zutelako'.
3. komertzioa	Emakumea	Adin ertaina (47 urte)	Komertziotik kanpo 05/03/2023	Mugikorraren bitartez egindako elkarrizketa	
4. komertzioa	Emakumea	Gaztea		Korreo bidezkoa	Ez dute erantzun korreoa, nahiz eta

		(26 urte)			berriro pasatu komertzioetik eta esan erantzungo zutela.
5. komertzioa	Gizona	Adin ertaina (54 urte)		Korreko bidezkoa	Ez dute erantzun korreoa, nahiz eta berriro pasatu komertzioetik eta esan erantzungo zutela.
1go lankidea	Emakumea	Adin ertaina (55 urte)	Koldo Mitxelena 20/04/2023	Aurrez aurrekoa	
2. lankidea	Emakumea	Adin ertaina (46 urte)	Koldo Mitxelena 20/04/2023	Aurrez aurrekoa	
1go subjektua	Emakumea	Gaztea (20 urte)	Kalean 20/04/2023	Aurrez aurrekoa	
2. subjektua	Emakumea	Gaztea (21 urte)		Korreko bidezkoa	Ez du korreoari erantzun.
3. subjektua	Emakumea	Gaztea (22 urte)	Kalean 22/04/2023	Aurrez aurrekoa	
4. subjektua	Emakumea	Gaztea (22 urte)	Kalean 22/04/2023	Aurrez aurrekoa	

5. subjektua	Gizona	Gaztea (20 urte)	Kalean 22/04/2023	Aurrez aurrekoa	
6. subjektua	Emakumea	Gaztea (20 urte)	Kalean 22/04/2023	Aurrez aurrekoa	

3.4 Emaitzak eta emaitzen analisisa

Behin behaketa egin ostean eta alde z aurretik aipatutako datuak hartu ostean, elkarrizketa erdiegituratuak egin ziren. Hauek pertsona desberdinei bideratuta egon dira, azkenean alde batetik komertzioen eta Koldo Mitxelena zentroaren pertzeptzioa jakin nahi zelako eta beste alde batetik ere bertan dauden pertsonak eta Koldo Mitxelenako kontsumitzaileak ere zer nolako pertzeptzioa duten fenomenoarekiko. Hori dela eta, egindako galdetegia desberdina izan dan bideratuta zegoen subjektuaren arabera eta horren atzean zegoen helburuaren arabera, baina guztiak izan dute puntu berdintsu batzuk, hauek hurrengoak izan dira:

- **Fenomenoaren bilakaera.** Hau da, azkenean zela pertzeptitzen duten beraiek etxegabetasunaren fenomeno, geroz eta pertsona gehiago ikusi badute kalean lo edo gutxiago, profil aldaketak...
- **Segurtasun sentimendua.** Esaterako seguruagoak sentitzen badira poliziaren presentzia edo zentroko guarda dagoenean.
- Zer nolako **pertzeptzioa** duten **etxegabetasun egoeran dauden pertsonen** dagokionez. Hau da, zergatik iritsi ahal izan diren egoera horietara, pentsatzen badute gizarte laguntzak nahikoak direla...
- Zer **nolako jarrera** izaten duten bereziki **Koldo Mitxelena eta bere inguruetan eta horrek ze modutan eragiten dieten**. Hemen ikuspegi desberdinak ikusiko ditugu, alde batetik, bertara joaten diren pertsonen ikuspegia izango genuen, beste alde batetik Koldo Mitxelena beraren lankideena eta bestetik komertzioena.

Behin guzti hau azaldu ostean, eta teorian zein elkarrizketen bitartez jorratutako gai desberdinen azterketa egingo dugu hurrengo parrafoetan. Fenomenoaren inguruan jorratuko diren ideia edo gai nagusiak hurrengoak izango dira: bilakaera, estereotipoak eta aurreiritziak, gizarte laguntzak eta gizarte harremanak. Guzti honekin Koldo Mitxelena dagoen egoera hobeto ezagutu ahal izango dugu eta bertakoek zer nolako pertzeptzioa duten fenomenoarekiko ere.

3.4.1 Bilakaera

Bilakaeraren inguruan hitz egiten dugunean ez dugu soilik erreferentzia egiten etxegabetasun egoeran edo bizarte-bazterkeria larriko egoera batean dauden pertsonen kopuruaren inguruan, baizik eta honekin batera kolektibo bezala duten ezaugarrien inguruan ere, hala nola, adina eta nazionalitatea.

Behin hau azalduta, teoriako hainbat ataletan landu dugun bezala, etxegabetasunaren fenomenoak bilakaera handia izan du hainbat aspektutan. Etxegabetasun egoeran dagoen **populazioaren igoerari** dagokionez, teoriak eta datuak esaten diguten arabera, azken 10 urteetan (2012-2022) %24,5-eko igoera eman da, eta beraz igoera nahiko handia eman da, 2012.urtean 22.938 pertsona identifikatu ziren, zeinak laguntzak erabiltzen ditzuten (2022.urtean gertatzen den bezala, pertsonen beste portzentai batek ere egoera berdinean daude baina ez dute laguntzen erabilerarik egiten), aldiz 2022.urtean 28.552 zeuden (honi beste %30 bat gehitu behar zaio, 37.117 pertsona izanez benetan etxegabetasun egoeran daudenak gutxi gora-behera).

Elkarrizketa bitartez lortutako **datuen arabera**, konturatzen gara igoera horretaz jabetzen direla, hau ondo ikusi genezake hurrengo esaldietan:

- *“Si que suele haber más personas” (Lehenengo komertzioa, emakumezkoa)*
- *“Si cada vez más y más y eso también se nota en el comercio” (Hirugarren komertzioa, emakumezkoa)*
- *“Si, pero va por temporadas, hay gente que está unos días luego desaparece por un tiempo y luego vuelve a venir... Pero si” (Bigarren langilea, emakumezkoa)*

- *“Kaletikan zoaz eta gutxienez ni ateratzen naizen bakoitzean edo ia gehinetan ikustet norbait kalian eta txikia nintzanean ez nuen hori ikusten... gaur egunean ikusi det azten urteetan jende gehiago kanpoan, supermerkatuen ondoan eta olan...” (Bosgarren subjektua, gizona)*

Aipatutakoaz gain, bilakaeraren beste aspektu bat kolektibo beraren barruko pertsonen perfila izango da, honen barruan adinari dagozkion datuak eta nazionalitateari dagozkionak azalduko ditugu. Landutako datuen arabera gaur egungo etxegabetasun egoeran dauden pertsonen bataz besteko adina 2012.urtean 42,7-koa da, aldiz 2022.urtean 42,9-koa. Beraz jada etxegabetasun egoeran dauden pertsonen adina igo egin dela esan genezake, gizarteak aldiz kontrakoa pertzipitzen du, gehiengoak **populazioaren gehiengoa gazteak** direla aipatzen badute. Hau islatua ikusten da elkarrizketatu diren subjektuen hurrengo esaldien bitartez:

- *“Orain kalean bizi direnak egin dira edadean jaitsi, gaztetxoagoak eta kanpotarrak” (Lehenengo langilea, emakumezkoa)*

- *“Ahora son todo jovencitos” (Hirugarren komertzioa, emakumezkoa)*

- *“En general son personas extranjeras de edad joven” (Bigarren langilea, emakumezkoa)*

Nahiz eta beste subjektu batzuei bai iruditzen **zaien jende zaharragoa** dela kalean egoten diren gehiengoa:

- *“Como que ves gente que es más mayor” (Laugarren subjektua, emakumezkoa)*

- *“Asko ikusi det pertsona helduak, ez hiabeste gazteak, adibidez 20-30 urteko pertsonak ez hainbeste, nik esango nuke 60 urtekoak eta olan” (Bosgarren subjektua gizona)*

- *“Gehiago ikusi ditut 30-40 urte ingurukoak” (Seigarren subjektua, emakumezkoa)*

Kasu honetan egia da atzerritarren populazioaren barruan, teoriaraz azaldutako INE (2022)-ren arabera¹⁰² dioenez gehiengoa gazteak izaten direla, konkretuki %68-ak 45

¹⁰² Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

urte baino gehiago ditu, aldiz bertakoak diren populazioaren kasuan soilik %34,3-ak du 45 urte baino gutxiago. Beraz hau agian kalean ikusi den populazioaren arabera izan ahal da ere.

Bilakaerari amaiera emateko, etxegabetasun egoeran dauden **pertsonen nazionalitatearen** inguruan hitz egin beharko dugu. Hau aldi berean estereotipo eta aurreiritziekin lotuta dago ere, baina puntu honetan sartuko dugu, azkenean pertsonen profilaren parte handi bat da eta. Subjektu desberdinekin izandako **elkarrizketen bitartez** ikusi da gehiengoak **inmigratioarekin** lotzen duela eta beraz pentsatzen dute **gehiengoa atzerritarrek** direla, baina **teorian** landutako INE (2012) eta INE (2022) datuen arabera,¹⁰³ etxegabetasun populazio espainiarra (2022.urteko datuei erreparatuz gero %50,1) eta atzerritarrena (2022.urteko datuen arabera %49,9) oso parekoa dela ikusten dugu. **Gizarteak** duen **pertzeptzioaren erreflexu** dira hurrengo esaldiak:

- *“gehien ikusten dudana profila gente inmigrantea izaten da egoera horietan daudenak” (bosgarren subjektua, gizona)*
- *“sobre todo yo creo que inmigrantes, osea gente de fuera, no he visto tanta gente de aquí ” (Hirugarren subjektua, emakumezkoa)*
- *“ahora muchas veces están estas situaciones de gente que se queda en la calle o gente que viene de fuera que no tiene nada que hacer” (Lehenengo komertzioa, emakumezkoa)*
- *“se ha detectado que casi todas las personas son de origen extranjero y sobre todo cada vez ven perfiles de personas más jóvenes” (Bigarren langilea, emakumezkoa)*

3.4.2 Estereotipoak eta aurreiritziak

Aldez aurretik azaldu den bezala, gizarte bezala aurreiritzi eta estereotipo batzuk sortzen ditugu kolektibo batzuen inguruan, eta beraz kolektibo guztiaren pertsona guztiei ezartzen dizkiegu ezaugarri berdinak. Estereotipoen inguruan hitz egiten

¹⁰³ Instituto Nacional de Estadística (2012). *Encuesta a las personas sin hogar*.
<https://www.ine.es/prensa/np761.pdf>

Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*.
https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

dugunean, orokorrean pertsona batekiko edo batzuekiko ditugun ideia negatiboen inguruan hitz egiten ari gara.

Kontuan izan behar dugu elkarrizketen bitartez lortutako datuekin ezin dela atal teorikoan aipatutako Espainiar etxegabetasun egoeran dauden pertsonen ezartzen zaien ezaugarri guztiei aurre egin eta beraz soilik batzuen arteko alderaketa egingo dela, hauek hurrengoak izanik: soilik gizonezkoak direlaren ideia, ikasketarik ez dutela, gehienek alkoholarekin eta drogekin arazoak dituztela eta delitugileak direlaren ideia. Azpimarratu beharra dago, esaterako laguntza publikoaren ideia hori geroago landuko den beste puntu batean garatuko dela, baita ere segurtasunaren ideia. Hori dela eta ez da beharrezkoa izango estereotipo eta aurreiritzi puntu honen barruan azaltzea, geroago sakonago azalduko baita.

Komenigarria iruditzen zait aipatzea **orokorrean gizarteak zer nolako irudia** daukan etxegabetasun egoera baten dagoen pertsonen inguruan, hau hurrengo esaldien bidez ikusi genezake:

- *“yo lo enlace con la imagen de un vagabundo digamos, o una persona que tiene un perro o no, que duerme con mantas y con cartones en los portales o en zonas donde se puedan resguardar del frío o de la lluvia, y varón... por problemas de consumo o por falta de oportunidad por haber llegado de otro país... sin estudios o con bajo nivel...” (Lehenengo komertzioa, emakumezkoa)*

- *“gente inmigrante, joven y varón... no trabajan porque no quieren... con problemas de drogas” (Hirugarren komertzioa, emakumezkoa)*

- *“magrebiarrak gehienak... agresiboak eta problematikoak batzuk ere badira... drogekin arazoak izaten dituzte gehienak eta baita ere burutikan arazoak dituzte hori si o si... gaztetxoak eta gizonezkoak izaten dira... ikasketak, ez dut uste eta izaten badute maila baxukoak izango direla pentsatzen dut” (Lehenengo langilea, emakumezkoa)*

Behin jakinda elkarrizketatuak zela ikusten duten etxegabetasun egoeran dagoen pertsona bat eta zer nolako ezaugarriak eransten dizkieten hurrengo paragrafoetan aipatutako ezaugarri batzuen inguruan hitz egiten arituko gara. Ikasketa ezaren ideiarekin hasiko gara, gizarteak bere gehiengoan pentsatzen du etxegabetasun egoeran dauden pertsona gehienak ez dutela ikasketarik, elkarrizketatutako subjektuen

gehiengoak ere hori adierazten du alde zurratik ikusi dugun bezala, baina pertsona batek hurrengo esan zuen:

- *“ez dauka zertan ikasketa gabekoak izan, adibidez ni neguan etorri nintzen eta geratu nintzen gauean ta bapatean etorri zen gizon bat, kalean zegoela seguru ze zetorren karro batekin pila bat gauzeekin ta olan eta bapatean atera zun arkatz bat bezala eta derepente ikusi nun fisika kuantikoko liburu batekin ikasten” (Seigarren subjektua, emakumezkoa)*

Etxegabetasun egoeran dauden pertsonen inguruko beste estereotipo bat **generoari lotuta** dago, kasu honetan, esan dugun bezala, orokorrean pentsatzen dugu gizonzkoak direla egoera horretan dauden pertsonak. Teoriari dagokionez, esan beharra dago etxegabetasun egoeran dauden populazioaren gehiengo bai dela gizonzkoa, INE (2022) ¹⁰⁴datuei erreparatuz, %76,7-a gizonzkoak ziren eta %23,3-koak emakumezkoak. Beraz ikusi ahal dugun bezala, egia da etxegabetasun egoeran dagoen populazioaren artean nahiko desberdintasun dagoela generoen artean. Elkarrizketatuak ere teoriarekin bat egiten dute hurrengo esanez:

- *“...mujeres no he visto muchas, la mayoría hombres” (Hirugarren subjektua, emakumezkoa)*

- *“no veo muchas mujeres por no decir ninguna, sobre todo en el colectivo magrebí... mujeres magrebíes no hay, o por lo menos no se ven” (Bigarren langilea, emakumezkoa)*

Jarraitzeko, kontuan izan behar dugun eta azaldu beharreko beste kontzeptu edo ideia bat nazionalitatearena da. Kasu honetan alde zurratik esan bezala, pentsatzen da **gehienak atzerritarrak** direla nahiz eta **datuek** erakusten diguten **antzeko portzentailean** daudela atzerritarrak eta espainiarrak direnak. Kasu honetan beraz **atzerritarrak** diren horiekiko **arazo edo kriminalitateari** buruz hitz egiten arituko garela, hau da, pertsonak orokorrean atzerritarra izatea eta gainera etxegabetasun egoera batean egoteak delituekin edo arazoekin erlazionatzeko ohitura dauka. Hau argi ikusten da hurrengo esaldien bidez:

¹⁰⁴ Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta a las personas sin hogar*. https://www.ine.es/prensa/epsh_2022.pdf

- *“al principio venían, les atendíamos amablemente, hasta que ha llegado un momento que no, yo he tenido que llamar a la ertzaina... y todo esto antes no pasaba, antes no había tanta gente de fuera” (Hirugarren komertzioa, emakumezkoa)*

- *“Otra vez nos robaron el bote, que ya lo tenemos escondido... cosas que aquí no pasaban, dejábamos todo fuera y no pasaba nada” (Hirugarren komertzioa, emakumezkoa)*

- *“mobila kargatzen duten bitartean ba bueno, tertulia egiten dute eta hori batzuetan arazo bat da, eta azken denbora honetan nire inpresioa da gazteagoak direnak ba trapitxeatu egiten dute... komunetara izugarrizko desfilea egoten da, handia vamos” (Lehenengo langilea, emakumezkoa)*

- *“Beti egon dira pertsona agresiboak, esan nahi det ez da perfilagatik direla agresiboak... gehienak edo zerbait edan dutelako edo zerbait jarrita daukatelako, hori seguru eta gero ba kultura desberdintasuna dago eta bueno, batzuei ez zaie gustatzen emakume batek agintzea” (Lehenengo langilea, emakumezkoa)*

- *“te puedo decir que sí que hay problemas aquí, siempre pasa algo, si no es que han robado algo es porque están gritando y armando bulla” (Bigarren komertzioa, gizonezkoa)*

- *“ha habido robos de mochilas, móviles y varios incidentes de este tipo” (Hirugarren subjektua, emakumezkoa)*

Honekin lotuta, esan beharra dago, datuak erakusten duten bezala etxegabetasun egoeran dauden pertsonen **%44,9-ak** adierazten duela **noizbaiten atxilotua edo salatua** izan dela. Baina azpimarratu behar dugu portzentaia handiago batean direla **biktima**, konkretuki **%50,3-an**.

Bukatzeko, **etxegabe geratzeko kausen** inguruan hitz egingo dugu. AIRES (2022)-k ematen digun datuen arabera¹⁰⁵, etxegabetasun egoera baten amaitzearen zergatia ez da soilik faktore pertsonalengatik izaten, baizik eta badaudela ingurumen faktoreak zeinak eragin handia dute, hala nola, lanik gabe geratzea, etxetik

¹⁰⁵ AIRES, Asociación para la inclusión residencial y social (2022). *Entender el sinhogarismo*. <https://airesasociacion.org/entender-sinhogarismo/>

kanporatzea... Kontuan izan behar dugu faktore hauek anitzak direla, nagusienak hurrengoak izanik:

- Emplegu falta (%63an kasuetan ematen da).
- Diru gabezia (%26'1an ematen da).
- 'Paper' gabezia (%13,4an ematen da).
- Haustura afektiboa (%11,8an kasuetan ematen da).
- Alkoholaren kontsumoa (%7,6an kasuetan ematen da).

Ikusi ahal dugun bezala **alkohol kontsumoak** badauka eragina baina etxegabe egotearen kausen ehuneko txikiena da, aldiz, gizarteak pentsatzen du gehienetan droga edo alkohol gehiegizko kontsumoarengatik bukatzen dutela horrelako egoeretan. Hau argi eta garbi ikusi genezake hurrengo esaldietan:

- *“yo creo que el no saber gestionar esa situación les ha podido llevar a eso, a problemas mayores, yo que se, alcoholismo, drogas o lo que sea” (Hirugarren subjektua, emakumezkoa)*
- *“y muchos, pues la mayoría yo creo que el 80% por drogas” (Hirugarren komertzioa, emakumezkoa)*
- *“creo que se debe más que nada al hecho de que o bien cayeron en una adicción que no les beneficiaba...” (Lehenengo komertzioa, emakumezkoa)*

Aipatutakoaz gain, egia da elkarrizketatutako beste subjektu batzuk ere **inmigrazioaren** faktorea aipatzen dute, baita ere **faktore anitzengatik** izan ahal dela, hurrengo esaldietan ikusi genezaken bezala:

- *“inmigranteak eta olan ikusten dia eta horien kasuan nik uste dut bai dela ee, ez dauzkatela laguntza gehiegi onera iristean” (Bosgarren subjektua, gizonezkoa)*
